



GUaiXE.net



Ardi-motzailea finalean lanean.

>> 15

Udalek 33 pertsona kontratatu dituzte

Gizarte Enplegu Babestuaren bidez kontratatu dituzte >> 5

Plazaola bide berdearen tramitazioa aurrera

>> 7

Interpretazio ibilbide berria zabalik Altsasun

>> 11



Felipe Gorriti musikari uhartearraren obra eskura

>> 23

Natur-parkeko lanen berri jaso du patronatuak

>> 5

Jendetza Artzain Egunean



Lakuntzarren plaza berria >> 16

Sakanako AEK
 Altsasuko Itsasi euskaltegia
 Gartzia Ximenez 46, 1.
 ALTSASU
948 468 258
sakana@aek.org



ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumnioa-P.V.C-Mistoak

GURE
REMOVE
PLANA

%20
ra
arteko
deskontua

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Bazkideek deskontua

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

Nekane Vazquez Galan
ZORIONAK potxola!!
Mila muxu etxeko guztien partez!!

Leire eta Maialen
Urte bat etxeko printzesak!!
ZORIONAK eta muxu handi bana.

Miren ONGI ETORRI mundura printzesita! Aita-txo, amatxo eta Ane.

Miren ONGI ETORRI Mirentxu! Aiton-amonen partez.

irailak

5-11

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Kashbad + Tutan come on. Irailaren 6an, larunbatean, 23:00etan Altsasuko gaztetxean. **Carovana** antifasistaren aldeko kontzertua.

El Desvan eta Goma. Irailaren 6an, larunbatean, 23:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazan.

Mercedes Cuadrado + Raices y brotes. Irailaren 7an, domekan, 18:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **La Encina.**

Antzerkia

Esta noche no estoy para nadie. Irailaren 6an, larunbatean, 20:00etan eta 22:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Mendi irteerak

Monte perdido. Irailaren 6an eta 7an, larunbatean eta domekan. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Urdiaingo buelta. Irailaren 7an, igandean, goizez. **Irurtzun Iratxo mendi taldea.**

Bizikleta irteerak

San Lorenzo ermita. Irailaren 7an, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik eta 9:50ean

Biotza kanpinean. 40 km. **Burunda klubeko mendi bizikleta taldea.**

Erakusketak

Festetako kartel lehiaketako erakusketa. Irailaren 12ra arte, astegunetan, 10:00etatik 14:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean.

Gure sustraiak ardatzen. Irailaren 5etik lastailaren 26ra arte, Altsasuko Basoko Mari dendan. **Paz Treuquill** maputxearen margoak.

Hitzaldiak

Nazismoa Ukrainian eta herri erresistentzia Donbassen. Irailaren 5ean, ostiralean, 19:30ean Altsasuko gaztetxean. Hizlaria: Asier Blas, EHUko irakaslea. **AGA.**

Literatura

Mitologia salvaje liburuaren aurkezpena. Irailaren 5ean, ostiralean, 18:00etan Altsasuko Basoko Mari dendan.

Bestelakoak

EH-Donbas elkartasun komitearen aurkezpena. Irailaren 5ean, ostiralean, 19:00etan Altsasuko gaztetxean.

Garagardo azoka. Irailaren 5etik 7ra arte, ostiraletik igandera, 19:00etatik



24:00etara, Altsasuko Zubeztia plazan. Zubiondo elkarte.

Bisita gidatuak Zamartzeko arkeologi aztarnategira. Irailaren 6an, larunbatean, 11:00etan Uharteko Arakilgo Zamartzen.

Deialdiak

Hipotekek kaltetutako Plataforma. Irailaren 5ean, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko

1. gelan, bilera.

Herri ostiralak. Irailaren 5ean, ostiralean, 20:00etan Altsasuko Foru plazan mobilizazioa, gero afaria. **Ospa!**

Euskal Presoak Euskal Herrira! Irailaren 5ean, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Zorri azoka, merkatu soziala. Irailaren 7an, igandean, 11:00etatik 15:00etara Etxarri Aranazko plazan.

1936ko altxamendu faxistak eraildakoen omenez. Faxismoaren aurka, oroimenaren alde. Irailaren 7an, igandean, 12:30ean Otsoportilloko leizean. **Etxarri Aranazko Udala.**

Euskal Presoak Euskal Herrira! Irailaren 7an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Ostiraleko **SAIOA** 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

beleixe ^{107.3 FM} *online*
www.guaixe.net

Piztu irratia!

ASTEBURUKO AGENDA

ASTEKO ERREPASOA:

albisteak, kirolak,
Altsasuko interpretazio
ibilbide berria...

Esataria: *Maiden*

ZURE NEGOZIOAREN BERRI EMATEKO, DEITU!



Sakanako
gida
2014

Sakanako etxe guztietan banatuko den
paperezko bertsioan
eta **interneterako**
gidan agertuko zara,
EZ GALDU AUKERA!

Jar zaitetz gurekin harremanetan

948 562 107 - 618 882 675

publi@guaixe.net - publizitatea@guaixe.net



Benjamin Zufiaurre Goikoetxea

Uda fresko samar bat izan ondoren

Lorez betetako Pirinioetan zoragarri disfrutatzen
Mendiak elurrarekin ikusiko ditugu azkar
Gero negua, zuriz, eta udaberria aldaketa askorekin;
Tartean "Diada" daukagu erabakitze eskubidearen alde
Ni zortzi urte Bartzelonan bizi ondoren
"Diada" ospakizunera joatekotan nago, katalanekin bat izateko
Eta kaleak kolorez pizturik ikusteko;

Udara honetan denetatik entzun dugu, eta gezurrak dexente Sozialistak "lifting" antzeko aurpegi berri batekin dabilta;
Krisia pasatu omen da eta datorena ilusioarekin ikusi behar!
Pujolek dirua Andorran, zergatik ez da andorrra bihurtu?...
Podemosekoak, Bosen Deabru kantu antzekoekin himno bihurtu
Makillaje hutsa, "ez hemengoak eta ez hangoak", beldurtzeko?
Ni beti "independente" asmoa-

rekin bizi eta mugitu naiz
Hemendik eta handik mundu zabala txikia ikusi, baina disfrutatuz;
Eta orain Eskorial "unagrande libre" koek esan behar didate, zer izan?
Zer sentitu eta nola bizi, nolako izan eta zer maite!
Frankismo garaia pasatu ondoren, inposaketak soberan daude
Eta orain ez digute betiko nazkagarrikeriaz zertxobait erakutsiko, edo? Estatu Batuetan Bank of Ameri-

kakoak 12.600 miloi euro isun jaso dute
Hipotekak direla eta halaxeko kaltea ekartzeagatik amerikarrei;
Noiz ordainduko dute hemen mafioso politiko lotsagarriek?
Noiz disfrutatuko dugu, gauzak bideratu direlako?
Udaberrirako politikariak berri-
tuak

Aurretik sei hilabete, Besterik ez.

ONDO EGIN DEZAGUN

hara zer dien

Eta jaietan...zer? Ezetz beti da ezetz!

Uda erdia pasatu da eta hainbat tokitako festaz gozatzeko aukera izan ondoren, laster, gure herriko festak gozatzea tokatuko zaigu.

Festak direla eta, uda hasieran, NIK ERE! Jai parekideen alde! Kanpaina hasi zuen lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egitea xede duen Altsasuko III. Itunak. Helburua emakume eta gizonek festetan gozatzeko aukera berberak izatea zen. Aholku batzuez lagunduta, jai parekide eta erantzunkideez gozatzera gonbidatzen zituen herritarrak.

Festagirotarekin jarraituz, emakumeenganako eraso sexualen prebentziorako eta herritarrak sentsibilizatzeko, Altsasuko Udalak bat egin du Nafarroako Familia eta Berdintasunerako Institutuaren ETA JAIETAN...ZER? Jaietan berdintasunaren aldeko Udalak kanpainarekin. Leloa, hauxe: EZETZA BETIDA EZETZ. JAIETAN ERRESPETUZ BIZI GARA. Honekin batera doan irudia festetako egitarauan agertuko da eta herrian barna kartelak jarriko dira.

Emakumeenganako errespetuan oinarritutako kanpaina da. Hitzeko erasoak, abusu fisiko

arinak eta sexu bortxaketak ahalbidetzen dituzten jokaerak gainditu behar dituzte mutil eta gizonek. Bestalde, guztion ardura da denok festaz gozatzea. Horregatik, neska, mutil, emakume nahiz gizona izan, holako jokaera eta jarreraren aurrean ez zaitez isildu, gaitzetsi eta salatu baizik, festak ez direlako emakumeenganako eraso sexistak justifikatzeko aitzakia.

Gogoratu nahi dugu ere, askotan, eraso sexualak pertsona ezagunengandik etortzen direla. Ezaguna nahiz ezezaguna izan, gogorik ez baduzu, EZETZ ESAN. Ez duzu inolako jokabide sexualik jasan behar zure borondatearen kontra. Eta ez uste errudun zarenik EZETZ ESATEAGATIK, ez eta sexu harremana izatera behartzen bazaituzte ere, nahiz eta zuk EZETZ ESAN.

Bestalde, Udaltzaingoak 24 orduko zerbitzua eskainiko du festetan, telefonoz, eraso sexual baten aurrean deitu ahal izateko: 636458016.

ERASORIK GABEKO JAI PAREKIDE ETA ERANTZUNKIDEEZ GOZATU!

Emakumeen bilgunea

objektibo tik



Zartadurak han eta hemen:

Aralarko santutegirako pistako zartadurak "famatu" bihurtu direnetik, Sakanan, batean eta beste, makina bat zartadurek bere burua aldarrikatu dute. Gehienak bigarren mailako errepideetan daude. Baina baita Zuarrarrate, Lizarraga eta Urbasako portuetan.

objektibo tik: gutunak@guaixe.net

astekoa

barrutik kanpora

Interneten saltzaileak batzuetan erakusleiho hutsa

Bigarren eskuko produktuen erosketen igoerak era berean partikularren arteko salmentetan bitartekaritzat jotzen duten internet atariak gehiagotu ditu. Artikulu motak ehunka daude, 6 euro baino gutxiagoko Playmovil basetxe batetik hasita 180 eurotako pertsiar katu bat arte.

Hala ere, batzuetan atariaren ospea dela eta kontsumitzaileak euskarri fidagarria dela pentsatzen du, eta errealitatean beti horrela ez den segurantzaren bat sortzen du. Praktikan, web hauek askotan bitartekari hutsak izaten dira, eta ez dute haien gain inolako erantzukizunik hartzen partikularrek elkarren artean egiten dituzten erosketetan.

Hain zuzen, kontsumitzaileak erabilpen baldintzak begiratzeko, horrelakoak irakur ditzake, adibidez, enpresa "ez da erantzule, ez zuzenean ezta bigarren mailan, ataria erabili eta honen bidez besteekin kontratatutakoekin gertatzen diren kalte-galeregatik" edo erabiltzaileak onartzen duela webak "ez duela inolako erantzukizunik".

Gehien gertatzen den iruzurra hau da: saltzaileak dirua jasotzen du, baina produktua ez du eskura ematen eta desagertzen da. Hori gertatu zitzaion Carlosi, txirrindula batengatik seihun euro ordaindu zituen, baina ordaindu eta gero txirrindula ez zuen inoiz jaso.

Produktua ez jasotzeaz gain, batzuetan arazoa da etxera helzen den artikulua kontsumitzaileak erositakoaren ezberdina dela edo kaltetuta dagoela. Ez da erraza partikular batekin egindako salmenta akastun bat zuzenaraztea. Beharrezkoa da beti transakzioa frogatzen duten dokumentuak gordetzea.

Nolanahi ere, ondo berezi behar da bitartekari huts bezala aritzen diren orriak eta bereak diren produktuak merkatarazten dituztenak.

Iratxe kontsumitzaile elkarte

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa
MAKETATZAILA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano eta Eñaut

Arribengoa Apaolaza
ZUZENTZAILEA: Felix Alzelai
ARGITARATZAILA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILA: Goizeder Anton eta Ainhoa Urretagoiena • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

SAKANA

Natur-parkean egitekoak zerrendatu dizkiote patronatuari

Bioitza-Urba kanpinean Urbasa-Andia natur parkeko patronatua garilaren 30ean elkartu zen. Pasa den urtean egindako lanak eta aurtengorako aurreikusitakoak errepasatu zituzten, Jose Javier Esparza Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio-ko kontseilaria han zela.

Abeltzaintzara bideratu ziren pasa den urteko aurrekontuaren bi herenak. Pasa den urtean Olatzagutia eta Ameskoa lotzen dituen errepidean (NA-718) bideko parri-lla edo kanadar langa jarri zuten. Aurten ere ur baltsetan lanak egin eta urguneak hobetuko dituzte: Santa Kiteriako baltsa (ur eramana eta zola) eta Urbasako saroi-ko askak. Horrekin batera, azien-aren saneamendu-tratamendua egin zuten, urtero moduan.

Egitekoak

Bilkura berean jakinarazi zenez, aurten Urbasako egurraren eta su-egurraren aprobetxamendua %15 handituko da, "mendiaren iraun-kortasunari kalterik egin gabe". Gainera, mendi-bideak (Santa Kiteriako pistarako sarbideak) eta landaredi gutxiko guneak hobetzen eta barrutietako itxiturak gainbegiratzen ari dira (Lizarr-



Behorak eta zaldiak Andian.

Pasa den urtean 33.770 buru			
Azienda	Urbasa buruak	Andia buruak	Natur parkean buruak
Ardi-azienda	12.342	13.990	26.332
Behi-azienda	2.887	1.307	4.194
Zaldi-azienda	1.163	2.081	3.244
Guztira	16.392	17.378	33.770

ga aldean itxiturako murrugan konponketak).

Basogintzako erabileraren barruan, berriki esleitu da Urbasa antolatze proiektuaren 5. berrikusketa. Horren bidez, parkearen basogintzako kudeaketa iraunkorra bermatuko da datozen hamar urteetan. Lanak aurtengo

urtean eta hurrengoan, 2015ean, egingen dira. Horretarako 55.856 euro inbertitu dira aurten.

Parkearen erabilera turistiko-ari dagokionez, Urederra ibaiaren iturburuko natura-erreserbarako sarbidea arautzea izan da aurtengo beritasun nagusia. Hala, 450 pertsona egon daitezke bertan aldi

berean. Pasa den urtean eremu horrek 103.271 bisitari hartu zituen, 2012an, berriz, 73.806. Bisita hazkundera izan da iturbururako sarbidea arautzeko arrazoia.

Bestalde, Natura 2000 Sareko parkea zaintzeko neurriei dagokionez, aurten, Andiako pagoak kimatzen, Andiako anfibioentzako urmaelak inguruko buztin naturalekin eta bigarren mailako espezieak landatuta iragazgaitzen, eta ugatzen, miru gorrien, sai zurien, bertako karramarroren eta inguruan dauden interese-

Langile gutxiago, aurrekontu gehiago

Aurten natur parkean 3 pertsona ari dira lanean. 2012an 7 izan ziren eta pasa den urtean 10. Nafarroako Gobernutik jakinarazi digutenez, bi izan dira murrizketa horretarako arrazoiak. Alde batetik, Kontratu Publikoen Legearen aldaketaren ondorioz, lehen GAN (Viveros y Repoblaciones) enpresa publikoaren bidez egingen ziren prozedura negoziatu bidezko kontratazioak, orain, departamentuaren bidez egingen direla. Bestetik, egin beharreko lanen inguruko izaera tekniko-ko erabakiak leudeke murrizketa horren atzean.

Hala ere, Nafarroako Gobernutik nabarmendu nahi izan dute Urbasa-Andia natur parkera bideratutako aurrekontuak %23,8 egingo dela gora. Guztira 380.501 euroko inbertsioa egingo da, pasa den urteko 307.356 euroko inbertsioaren aldean.

Ehunekotan

Behi-azienda	%37
Latxa ardiak	%28
Zaldi-azienda	%28
Rasa ardiak	%7

ko beste espezie batzuen jarraipena egingen ari dira.

Ibarreko erakundeek 33 langabetu kontratatu dituzte

Horretarako Nafarroako Gobernuaren 153.323,28 euroko diru-laguntza izan dute

Sakanako toki-erakundeek gizarte bazterketa bizi duten edo horren arriskuan dauden 33 pertsona kontratatu dituzte. Horretarako, Nafarroako Gobernuaren Zuzeneko Enplegu Aktiboaren deialdia baliatu dute. Toki erakundeek Gizarte Enplegu Babestuaren



Langileak masa egiten. ARTXIBOA

Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza

Erakundea	Kontratatuak pertsonak	Diru-laguntza
Arakilgo Udala	4	18.584,64
Iruztungo Udala	10	46.461,60
Lakuntzako Udala	2	9.292,32
Arbizuko Udala	1	4.646,16
Etxarri Aranzako Udala	4	18.584,64
Burunda mendebaldeko		
Gizarte Zerbitzuen Mank	12	55.753,92
Guztira	33	153.323,28

bidez, gizarteratzeko edo lan munduan sartzeko aukerak hobetzeko laguntza behar duten pertso-

na kontratatu dituzte. Baita gaitasunak hobetu beharra zituzten langabeak ere.

TXIKITXO
haurren arropa eta leintzeria

948 46 73 08
Ferialeku 2 · ALTSASU

nc
nerea cenoz
nutrición

Giza Elikaduran eta Dietetikan Diplomataua (Nafarroako Unibersitatea)

info@nereacenoz.com
nereacenoz.com

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan

Estafeta 16, atzea · LAKUNTZA
(Bostekoa masaje zentroan)

Pisua kontrolatzeko dietak:

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi-dietak

Patologia ezberdinetarako dietak

Kirol-elikadura
Elikadura arazoak
Nutrizio-hezkuntza

R. P. S. N.º 372/04

KILIKI TAKI
Altasuko buruhandien tailerra

URRIAN hasiko gara.
Zure trikiarentzat buruhandi bat edo erraldoi bat egin nahi baduzu parte hartu aurtengo tailerrean.

Dirudiena baino errazagoa da!!!
Anima zaitez!!!
Talde mugatuak.

Informazio: 636 441 796

SAKANA

36ko hildakoak gogoan, hitzordua Otsoportillon

Igandean, 12:30ean, ekitaldia egingen da erahildako ugari hartu zituen leizean

1980tik, urteromoduan, 1936an Sakanako fusilatuen senitartekoak biltzen dituen elkarteak eta Etxarri-Aranazko Udalak ekitaldia antolatute, iraileko aurreneko igandean. Estatu kolpe haren ondorioz nazionalerahildakoen omenezko ekitaldia izanen da. Ohi bezala, orduko garaiak ekarriko dituzte gogora,

eraildakoei dantza egingen zaie, hizlaria izanen da eta despeditzeko auzatea ez da faltako. Guztia *Faxismoaren aurka. Oroimenaren alde* lelopean. Aurretik elkarteak antolatutako elizkizuna izanen da.

Udaletik gogora ekarri zuten 1936ko garilaren 18ko "altxamendu militar faxistak odolez eta malkoz bete zituen Etxarri eta Sakanako herri guztiak". Ondorioz sindikalisten, haien eskubi-



Igandean, atzera ere, Otsoportillo topagune bihurtuko da. ARTXIBOA

deen alde aritu ziren emakumeen, hautetsi ezkertiar edo abertzaleen eta irakasle, sendagile eta

funtzionario aurrerakoien kontrako "errepresioaren alderik krudelena pairatu" zuela gogora-

tu dute Etxarri Aranazko Udaletik, nabarmenduz faxisten eraso hurrigar guztiengana hedatu zela.



Olatzagutiko ikuspegia Urbasako portutik.

PSN errausketaren kontra, balioztatzearen alde

Nafarroako hondakin plan berria errausketarik ez jasotzea eskatu dute sozialistek. Hala ere, Olatzagutiko porlandegian hondakinak erretzea egoki jotzen du

Samuel Caro parlamentari sozialistak agorrilaren 7an Nafarroako Gobernuari hondakinak kudeatzeko

ko plan berria egiteko eskatu zion. Carok plan berria adosteko errausketa aukera baztertzeko baldintza jarri zuen. Hondakinaren kudeaketarako bestelako eredu baten alde agertu zuen Caro. Sakanako Mankomunitatearen helegiteari epaileak

arrazoia eman ondoren baliogabe gelditu zen 2010ean gobernuak onartutako plana.

Carok ez zuen argitu Olatzagutiko porlandegian hondakinak erretzearen kontrako jarrera zuen. Agorrilaren 12an Juan Jose Lizar-

bek adierazi zuen Carok azalduetakoa etorkizunera begirako jarrera zela eta Olatzagutikoarekin zerikusirik ez zuela. "errausketaren aurka egotea porlandegian hondakinak erretzearekin ez da bateraezina".

Madrilgo sozialistak eredutzat hartzeko gonbita

Horixe egin zion 3 Mugak Batera plataforma (3MB) PSNri. Eta horretarako PSMren hitzak ekarri dizkiete gogora: "Argi eta garbi, hondakinak erraustean aurka gaude, energia balioztatzearekin edo gabe (errauskailuak, zementu-fabrikak, labe

garaiak edo antzekoak) Madrilgo Autonomia Erkidegokolur eremu osan, eta hondakinak sortzen diren tokitik ahalik eta hurbilen tratatzearen, materia organiko bereizturik biltzearen, ontziak itzultzeko eta berrera biltzeko sistemen (SDDR) eta posible den udalerrietan atez ateko bilketa berezituaren aldeko hautua egiten dugu. Hau guztia, Zero Zabor helburuak lortu ahal izateko."

Sozialistak agintean dauden Andaluziako eredu ere jarri du 3MBk: Andaluziako Juntak Niebla herriko autonomia errespetatuz porlandegian hondakinak errausteko baime-na ukatu du. Olatzagutiko kasuan PSNko Roberto Jimenezek eta UGTko Javier Lekunberrik udalaren araudia gainditzeko ekin bidea sustatu zutela salatu du. Bestalde, 3MBk gaitzatu duenez,

Olatzikoaren pareko den Sevillako porlandegian 290.000 tona hondakin balioztatze eskaera aurkeztu dute. Porlandegiaren asmoak aurrera joz gero, 3MBtik ohartarazi dute gerta daitekeela "errausketa debekaturik duen lurralde batek beste probintzia batzuetako mila-ka tona hondakin jasotzea Olatziko zementu-fabrikari <erregai> moduan erabiltzeko".

Altsasu



Protestak Ukrainian.

Ukraina ekialdera begira

Donbasko erresistentziarekin elkartasun komitea aurkeztuko dute gaur gaztetxean. Lungaskeko brigadista madrildarrak presente izanen dira.

Faxismoaren kontrako karabana antolatu du Italiako Banda Bassoti musika taldeak. Heldu den ostira-leandira Erromatik abiatzekoak. Hilaren 25ean Moskura iritsiko dira, 27an, Rostovera eta 28an Novorossijara. Karabana horri laguntza ekonomikoa emateko eta Ukraina mendebaldeko erresistentziaren berri emateko Altsasuko Gazte Asanbladak elkartasun asteburua antolatu du. Gaur, 19:00etan, Euskal Herria-Donbas elkartasun komitearen aurkezpena hartuko du gaztetxeak. Ondoren Asier Blas, EHUko irakasleak eta politologoak, hitzaldia emanen du: nazismoa Ukrainian eta herri erresistentzia Donbassen. Biharko, berri, gazte asanbladak kontzertuak antolatu ditu. 23:00etatik aurrera Kashbad taldeak *Arrakala* disko berria aurkeztuko du. Tutan come on talde gasteiztarrek osatuko du egitaraua.



Lau sakandar Espainiako Auzitegi Nazionalerako bidean

Segiko kide izatea egotzita, irailaren 22tik aurrera 28 gazte epaituko dituzte. Haien artean daude Arbizon bizi den Ainara Ladron eta Imanol Salinas olaztiarra. 28ak Libre ekin bidearen barruan elkartasun argazkiak jaso dituzte udan barna, Sakanakoak barne. Bestalde, 22ko epaiketa ez egiteko eskatuz hurren-

go egunetan hainbat jardura izanen direla iragarri dute. Tartean, hilaren 14an, Gernikan egingen den nazio-ekitaldia.

Bestalde, Ekinekin lotuta 2010ean eta 2011n atxilotu zituzten 15 euskal herritarrek Espainiako Auzitegi Nazionalaren auzipetze autoa jaso dute. Javier Gomez Bermudez instrukzio

epaileak "erakunde terroristako" kide izatea leporatzen die guztiei. Haien artean daude Joxe Aldasoro eta Patxi Arratibelaxarriarrak. Azken horrek, polizia deklarazioan aznugal (laguntza alderantziz) idatzi zuen polizia deklarazioan, inkomunikazio egoeraz ohartarazteko. Torturak salatu zituzten.



Etxarriarrak atxilotu bati animoak ematen. ARTXIBOA

» Arakil / Irurtzun

Ikasturte berriko eskola garraiorako diru-laguntza eskaera epea ixtear

Gaur arteko epea dute interesatuek Arakilgo eta Irurtzungo udaletxeetan eskaerak aurkezteko

Derrigorrezko hezkuntzaren ondoren ikasten jarraitzen duten DBH-ko ikasleei zuzenduta dago eskola garraiorako diru-laguntza deialdia. Biurdana eta J.C. Baroja ikastetxeetara joan edo bestelako ikasketak egiten duten ikasleek eska dezakete udalen diru-laguntza. Aipatu bi ikastetxeen egutegiaren arabera eskainiko da autobus zerbitzua.

Eskola garraiorako diru-laguntzen eskabideak irailaren 5era arte aurkeztu daitezke bi udaletxeetan. Bi udalen web orrietan daude eskabide ereduak eskuragarri. Udalaren eskaera egiteko ezinbestekoa izanen da Hezkuntza Ministerioko eta Nafarroako Gobernuaren bekak eskatzea.

» Unanu

San Donati eguna ospatu zen

70 pertsona bazkaltzera elkartu ziren eta Denok bat elkartearen musika izan zen gero

Uhartearrek Beriaingo ermitan agorriaren 10ean erromeria antolatuta zuten. Egun horrekin makina bat sakandar igotzen da Beriaingera. Unanun ohartuak zeuden horretaz aspaldi eta herriari bizia emateko ospakizunen bategitea zuten buruan. Joandenerterean egitekotan izan ziren, baina berandutu egin zitzaizkien. Aurtentzen, ordea, garaiz ibili dira eta unanuarrek ermitari hots egiten dioten moduan San Donati eguna ospatu dute.

Unanuarrek eta herritarrek ez direnak elkartu ziren bazkaltzera. 70 pertsona guztira eta gero elkartearen dantzaldia izan zuten. Azken hori San Donati egunez tabernagisa zabalik izan zelako. Esperientzia onak heldu den urtean eguna berriro antolatzea animatu ditu unanuarrek. Mendizaleak Beriaingo erromeriatik jaitsi ondoren bazkaltzera gonbidatu dituzte.

» Egiarreta

Urbanizazio berriak hiru etxe hartuko ditu

Egiarreta sarreran lur mugimenduak egiten ari dira, urbanizazio berri bat egiteko. Herri sarreran, ezkerretan ari dira makinak lanean. Udalak onartutakoaren arabera San Anton kaleko urbanizazio berri hiru etxe eraikitzea aurreikusten da. Lanak bukatu bezain pronto etxebizitzetako bat eraikitzen hasiko direla aurreratu digute udaletik.

» Arakil / Aizkorbe / Irurtzun

Plazaolako bide berdeen Sakanako zatiaren tramitazioa aurrera

Irurtzungo, Arakilgo eta Itza Zendeako ibilbideko 9,5 km-etako lanak egingen dira lehenik, aurretik egindako bidea hegoalderantz luzatuz

Plazaola trenbide zaharraren Irurtzun eta Saratsa arteko tartea berreskuratzeko ukitutako ondusun eta eskubideak desjabetzeko prozedura hasi du Nafarroako Gobernuak. Horretarako, Susta-peneko kontseilari Luis Zarraluqui Ortigosak agorriaren 14an Foru Agindu bat eman zuen.

Iruña eta Donostia arteko Plazaola trenbide zaharraren trazadura bide berde bihurtuko da lanak desjabetzean eta hura motorrik gabeko turismo eta aisiako jardueren ardatz gisa erabiliko da. Nafarroako zatiaren sustatzailea Plazaola Turismo Partzuergoa da eta Nafarroako Gobernuaren egitasmoa Udalez Gaiendiko Plan Sektorial baten bidez ari da garatzen.

Gaur egun Mugiron lanean ari

dira, 4,14 km-ko zatiaren (Ingurumen Ministerioaren 274.435 euroko aurrekontua du lanak). Lan horiek desjabetuta, udazkenetik aurrera, Andoain eta Irurtzungo muga artean bizikletan edo oinez ibiltzeko aukera izanen da. Bestalde, Sakanara bide berdea nondik sartu aztertzen ari dira.

Sakanan

Plazaolak 85 km-ko ibilbidea zuen. Haietatik 2,3 Sakanan. Bere bidean zituen 66 tuneletatik bi Sakanan daude, Aizkorben (620 metro) eta Irurtzunen (Artadikoa, 180 metro). Biak ere luiziengatik itxiak daude gaur egun. Trenbidearen jatorrizko ibilbideari ezin zaionean segi ibilbide alternatiboak aurreikusitako, "bide berdearen" jarraipena bermatzeko. 17 geltokietako bat Irurtzungoa zen, egun desagertua dagoena.

Proiektua gauzatzeko Irurtzu-



Bi Aizpe eta harako bidea. Handik ibili zen Plazaola trenbidea. ARTXIBOA

nen udalari bidea diren 5.539 metro karratu desjabetuko dizkiote. Aizkorben guztira 10.301 metro karratu desjabetuko dituzte: 7 partikularri (4.689 m²), Aizkorbe Kontzejuari (lau sailletik,

guztira 4.197 m²), Ebroko Ur Konfederazioari (bi lur-sailletatik, 760 m²), Arakilgo Udalari (bi lur-sailletatik, 515 m²) eta Nafarroako Gobernuari (bi lur-sailletatik, 140 m²).

» Arakil / Irurtzun

Garai bateko lan-tresnen erakusketarako lanabesak uzteko deia

Hilaren 14an Irurtzunen egingen den ganadu azokan erakutsi nahi dira garai bateko lan tresnak

Dagoeneko urte bat pasa da Irurtzungo eta Arakilgo bertako ganadu azoka berreskuratu zenetik. Bi udalek aurtentzen ere prestatu dute ganadu azoka, irailaren 14an izanen dena. Atzera ere, Irurtzunen bertako arrazetako azienda, garaiko nekazaritza produktu ekoizleak eta artisauak elkartuko dira, musika eta bestelakoekin batera.

Arakilgo alkate Ruben Goñik jakinarazi digunez aurtengo berrikuntzetako bat garai bateko lan-tresnen erakusketa izanen da. Eguraldiak laguntzen badu Amaia kalean jarri nahi dute erakusketak. Goñik azaldu digunez, "ondarea berreskuratu eta, gainera, garai batean eskuz nola lan egi-



Forjariak lanean. Lanabesak uzten dituztenak ez dute haiekin lan egin beharko.

ten zen erakutsi nahi diegu haur, gazte, heldu eta adinduei". Goñik gaineratu duenez, "orain dela

gutxira arte erabilitako lan-tresnak ezagutzeko modua izan nahi du erakusketak". Lanabes bako-

Harremanetarako

Euren lan tresnak erakusketa horretarako utzi nahi duten arakildarrek eta irurtzundarrek Arakilgo udaletxera jo dezakete, 948 500 101 telefonora hots eginez edo info@arakil.net e-postara idatziz. Heldu den asteazkenean arteko epea dago.

tza bere fitzarekin aurkeztuko dute, zer den, nola erabiltzen den eta norena den adieraziz.

Goñik azaldu digunez, dagoeneko tresna batzuk jasoak dituzte. "Baina badakigu Arakilgo eta Irurtzungo etxeetan garai bateko lan-tresna interesgarri ugari daudela. Lanabes horiek erakusketarako uzteko deia egiten diegu antolakuntzatik".

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan
orain!

Berria erosi taldea

kaxeta
liburudenda / paperdenda
Enkargatu zure testu liburuak

Fax Zerbitzua
Koloretako fotokopiak

Tel.: 948 460 477
Larrañeta 22, ETXARRI-ARANATZ

HIJOS DE GOIKOETXEA
EDARI BANATZAILEA

Patxarana egiteko anisa
3 litroko garrafak

24^otakoa
28^otakoa
35^otakoa

Geltoki auzoa 11
Altsasu
948 467 317 · 696 979 279
hijosdegoikoetxea@yahoo.es

>> Etxarri Aranatz

Udaletxetik adierazpen askatasun eske

Etxarri Aranazko festetan izan zirenak adierazpen askatasunaren aldeko ikurra irudikatua ikusi zuten udaletxean. Udalak horrela Nafarroako Administrazioarekiko Epaitegian garilaren 8an emandako epaiaren kontra protesta egin zuen. Izan ere, epaiaren udaletxeko fatxadan inolako esaldi, ikur edo irudirik jartzea debekatu du. Halakorik egiten duen hautetsiak desgaikuntzazigorra eta isuna jasoko lituzke bestela.

Etxarri Aranazko Udalatik “gogor salatu dute” epaia, “etxa-



Adierazpen askatasuna murriztu diotela salatu du Etxarriko Udalak.

rriarron askatasuna errotik urratzen duelako eta udal batek izan beharko lukeen eskubide demokratiko oinarrikoenak ukatzen dituelako: adierazpen askatasuna eta aldarrikapen eskubidea”. Halako epai orokor bat jaso duen udal bakarra Etxarrikoa dela ere salatu dute udaletik.

Aldi berean, udal arduradunek gaineratu dute bestelako adierazpen bideak baliatuko dituela egin beharreko aldarrikapenek tokia izan dezaten, esaterako: ingurumena, euskara, giza-eskubideak,

sexuen arteko aukera berdintasuna, beste herrialdeekiko elkartasuna...

Bestalde, PPK Etxarri duen zinegotziak, Juan Antonio Extremera Apestegiak, festa hasiera politizatu izana gaitzetsi zuen eta festetan ez dela inolako ideologiarik inposatu behar esan zuen. Extremerek salatu zuen, Ikurren Legeak dioenaren kontra udaletxean ikurrina eta koroarik gabeko Nafarroako bandera jarri zirela. “Gainera, udaletxeko balkoietatik presoen aldeko pankartak erakutsi dira”.

>> Altsasu



Alde Hemendik aldarrikapena zabaldu zuten larunbatean.

Ospa mugimenduak kalejiran zabaldu zuten “alde hemendik” mezua

Kontrolak, okupazioak, jarraipenak, oldarraldiak, identifikazioak, mehatxuak, irainak, muntai politzial, isun politikoak eta beste pairatzen segitzen dutela salatzen Ospa Eguna antolatu zuten larunbatean izen bereko mugimenduak.

Herri indarraz botako ditugu leolarekin, larunbatekoa “elkarlanean errepresioaren aurkako aldarrikapena indartzeko eguna” izan nahi izan zuen. “Indar eta kontrol sozio-politikoaren bidezko okupazio eta inposizioa” salatu nahi izan zuen Ospa mugimenduak.

Horretarako, eta pasa den urtekoa ez gertatzeko, Ospa mugimen-

Indar polizialak eta militarrek alde egiteko eskaera, kalera

duak Altsasuko kulturako, festako eta bestelako gizarte adierazpideak aterazituen kalera; “herriak soilik okupatzen duelako herria”. Bi kalejiratan banatu zituzten adierazpide horiek. Nettoko aparkalekutik abiatu zen bata eta bestea Mendia ostatuko biribilgunetik. Herrian barnako kalejira luzean Ospa eguneko aldarrikapenak irudikatu ziren parodia, antzerki, joko, kontzertu eta bestelako bidez. Ibilbidean 1934ko lastailaren 4an Guardia Civilak hildako Emiliano Eguzkizaren senideei omenaldia egin zieten. Ospa mugimendutik Altsasuko, Sakanako eta Euskal Herriko herritarrak errepresioaren aurka borrokatzea animatu zituzten.

Polizia dentsitateaz

Sakana Europa Batasunean polizia dentsitate handiena duen eremua duela salatu zuen Ospa mugimenduak. Zabaldu zuenez, Guardia Civilaren kuartelean 30 bat agente daude eta 40 bat Foruzaingoarenean. Kopurua Iruñetik etortzen diren Guardia Civilaren GAREkin eta Foruzaingoaren eliteko taldeekin handitzen dela nabar-

mentu zuten Ospatik. Emandako datuen arabera, mila biztanleko bederatziz polizia daude, EBk bigomendatzen dituenen.

Aurreko egunetan eta larunbatean bertan Altsasuko sarreretan Guardia Civilaren eta Foruzaingoaren kontrolak izan ziren. Hedabideek zabaldu zuten lehengoetako ehun agente izan ziren larunbatean Altsasun.

Guardia Civilari buruzko bi jarrera

Sortuk eta PPK Ospa egunaz iritzia eman dute

Ospa Egunari atxikimendua adierazi zion Sortuk. Nafarroako ele-dun Maitane Intxaurregak adierazi zuenez, “Euskal Herriaren desmilitarizazioa abiatzeko uneda, Guardia Civilak alde egin behar du”. Intxaurregak gogora ekarri zuen Nafarroan mila biztanleko 5,4 polizia daudela, Europan 3,37 denean. Aldi berean Guardia Civilaren “helburu bakarra lege arrotzak inposatzea” dela azpimarra-

Ospa egunagatik diligentziak zabalik

Momotxorroz jantzitako pertsona batzuk Ospa Egunean trikornio handi bati su eman zioten. Ondoren berdez jantzitako panpin bat bota zuten sutara. Fisikaltzak horren berri jaso eta ikerketa abiarazi duela jakinarazi dute hainbat hedabidek.

tu zuen, eta “zigorgabetasun eta boterearen gehiegikerien erakusle” direla nabarmendu. Horregatik, Ospa Eguneko aldarrikapenekin bat egin zuen Sortuk. Bestalde, PPKo Sakanako Eskualde Batzordeko buru Juan Antonio Extremera Apestegiak salatu egin du Altsasu Guardia Civilaren kontra eta hura iraintzen dituzten pintadez josia egotea. “PPtik erabateko babesa ematen diegu Guardia Civilei eta Estatuko indarrei, bereziki Altsasuko kuartelekoei, lan handia egiten dute Nafarroako eskualde zail batean”.

Betaurreko moreak, jai parekideen alde

Garagardo Azokan gaur egingo duten photocall-ean parte hartzea deitu dute

Altsasuko Feministek eta Bilgune Feministak elkarrekin kanpaina bat abiatu dute festetarako: *jai parekideen alde, jantzi betaurreko moreak*. Hala, jai eredu patriarkalaren itsutasunetik ateratzeko deia egiten dute eta betaurreko moreak jantzeko gonbitea egiten dute

gaurko Garagardo Azokan bertan.

Gogoratu nahi dute kaleak, gauak, egunak eta jaiak pertsona guztion gozamenerako direla, horregatik, Altsasu eraso eta hierarkia gabeko gunea bilakatu nahi dute, “askatasunean oinarritutakoa, konpromisoa guztiona delako”. Pertsona guztiak burujabe izatera animatzen dute

eta elkarrekin gozatzeko deia egiten dute.

Bestalde, herenegun haiek antolatutako *Festa dezagun gaurdanik geroa* bideoaren emanaldira jende ugari joan zen. Euskal Herriko hainbat herriko festetan emakumearen parte hartzea aztertzen du ikus-entzunezkoak, tartean, Altsasuko Santa Agedaren berri ere ematen du.



Gaur betaurreko moreak jantzera gonbidatu gaituzte.

SAKANA

LHko Mendiko Kirol eta Eskaladako ikasketetarako izen ematea zabalik

Ostiralerara arte eman daitezke izena Altsasun dagoen Sakana LH institutuan. Sarbide probak hilaren 18an eta 19an eginen dituzte

Ikasturte honetan ikasketa horiek egin nahi dituzten 60 ikaslerendako eskaintza egin du Hezkuntza Departamentuak. Mendi kirol eta eskaladako gradu ertaineko lehen maila egin nahi dutenek izena eman ondoren onartua izateko probak egin beharko dute, haien egoera fisikoa baloratzeko.

Hautagaiek 1.500 metroko desnibel absolutua duen ibilbide batean ariko dira hamar kilo baino gehiagopisatzen duen motxila batekin eta epaimahaiak erabakitako denbora batean. Hiru ibilbide ere gainditu beharko dituzte: lehena, belar-malda batetik egindako jai-

tsiera izango da; bigarrena, haitz-malda batetik jaitsi ondoren aldapan gora egingo dute, eta horiek guztiak epaimahaiak erabakitako gutxieneko denboran osatu beharko dituzte. Horren ondoren jakinaraziko da onartuen zerrenda.

Sakanan bakarrik

Otsaila hasieran hasi zen Sakana Lanbide Heziketa (LH) institutua mendiko kirol eta eskaladako gradu ertaineko ikasketetako lehen maila. 21 ikasle hasi zituzten ikasketa horiek, bi ikasturtetan banatuak daudenak. Guztira 975 orduko ikasketak dira. Aurreneko kurtsoan 420 ordu egin zituzten, klasean eta mendiko praktikak uztartuz. Bigarren ikasturtean ikasle horiek 555 ikas-



Otsailan hasi ziren ikasleetako batzuk, irakaslearekin batera.

Sakana LH IIPko eskaintza

Ziklo horretaz aparte, Altsasun LHko ikasketa hauek egin daitezke: motorren mekaniko laguntzailea (DBH gainditu ez duten ikasleei zuzendutako hasierako prestakuntza profesionaleko programa); mantenu elektromekanikoa (gradu ertaina); sodadura eta galdaragintza (gradu ertaina) eta mekatronika industrial (goi gradua).

gai-ordu izanen dituzte aurretik. Behin gradu ertaineko mendi ertaineko kirol-teknikaria zikloko titulua eskutan dutela ikasleek ikastetxe, klub, federazio edota enpresetan lan egiteko aukera izanen dute. Ikasketetan sakondu nahi duenak goi mailako ikasketak egin ditzake. Altsasuko institutua da ikasketa hori Nafarroan eskaintzen duen bakarra.

Altsasu



Udalak jarduera eskaintza zabala aurkeztu du

Altsasuar guztiak etxean jaso dute udalak ikasturte berrirako eginen duen eskaintza. Hor jaso dira Emakumeen Bilgunearen (emakumeentzako ikastaroak eta tailerrak), ludotekaren (2002-2014 urte bitartean jaio direnen taldeak), Gazteria sailaren (12-30 urte bitartekoentzako ikastaroak eta tailerrak, eta gehiago Intxostiapuntan), kultura sailaren (antzerki taldea), Kirol zerbitzuaren (kirol eskolak) eta Zelandi kiroldegia- ren (hainbat jarduera) eskaintza.

Dagoeneko guztietan izen ematea zabalik dago. www.alsasua.net web orrian dago guztiaren berri. Errentaren araberako prezioak ezarri dira Emakumeen Bilgunea eta Kulturako jardueretan. Hobariak eskuratzeko iazko errenta aitortpenaren kopia aurkeztu behar dute interesdunek.

Udaletik nabarmendu dituzte, alde batetik, Emakumeen Bilguneak eskaintzen duen Neure burua zaintzen ikastaroa. Genero ikuspuntutik abiatuta emakume izateko aukera anitzak eta berriak jorratuko dituzte. Bestetik, Gazteria sailak eskaintako Jolasa eta bere saltsa ikastaroa nabarmendu dute, helburua duelako: parte-hartzea eta elkartegintza bultzatzea, baliabide praktikoak emanez aisialdi osasungarriko proiektuak dinamizatzeko, betiere jolasa tresna nagusizat hartuta.

Irurtzun

Gernika parkean hobekuntzak egin ditu udalak

Herriko espazioetan kokatu ditu udalak parkeak: Foru plaza, Iturtxoko, Montiko eta Gernika plaza

Irurtzun erdigunean dagoen eremu hori hobetzeko zenbait lan egin ditu udalak dagoeneko. Esaterako ertzetan zituen pibote arriskutsuak kendu eta barandekin ordezkatu ditu. Aldi berean, Mikel Lasarte irurtzundarrak, borondatez, lehortutako haritz zahar batean zenbait eskultura zizelkatu zituen.

Horietaz aparte, heldu den astean haurrendako jolas parke berria jartzen hasiko da udalak kontratatutako enpresabatek. Egungozabua mantendu eginen dira eta saskia



Emakumea eta haurrak Gernika plazan.

duen zabua gehituko zaie. Gainera, beheko partean, Erdi Aroko gazte-

lu baten itxuraduen egitura bat jarriko da, 3 eta 12 urte bitarteko hau-

Gernika plaza izenaren jatorriaz

Irurtzunge Kontzejuak eman zion eremu horri Gernika izena. Bizkaiko hiriak 1937ko apirilaren 26an jasan zuen bonbardaketa gogoratzeko, bake ikur gisa eta halako sarraskirik berriro ezin dela gertatu adierazteko hartu zuen kontzejuak erabakia, bonbardaketaren 50. urteurrenean. Gernikako arbolaren kimu bat landatu eta plaka bat jarri zen.

rendako izanen dena. Jolas-parke berriak 30.000 euro balio du.

Lakuntza

Festen aurretik plaza mustu zen

Haurrendako jolasekin, euskararen aldeko flashmobaren aurkezpenarekin eta 200 bat lakuntzar elkartu zituen herri-afariarekin mustu ziren agorriaren 21ean plazan egindako lanak. Egun horretan eta festetan plazako farola berriek eusten duten toldoaren estalpea ere mustu zuten.

San Saastin festen ondoren hasi ziren lanek erabat itxuraldatu dute lakuntzaren bilgunea den plaza. Eliza eta iturria bitartean, plazak eta ondoko kaleak bat egin dute, eta oinezkoendako espazioa sortu da. Hala ere, auzokideek euren ibilgailuekin sartzeko aukera dute puntualki. Plaza gurutzatzen duen Mikel Arregi kaleko tartea jaso da, ibilgailuek abiadura mantsotu dezaten. Plazako zoladura berritzearekin batera, sareak berritu eta beste



Oinezkoendako espazio zabala bihurtu da plaza Lakuntzan.

zerbitzu batzuenak lurperatu dira. Udaletxeari garrantzia emateko bere parean ez da zuhaitzik jarri. Plazan zeuden platanondoak masusta-arbolengatik ordezkatu dituzte.

Lanak Texsa enpresak egin zituen eta Lakuntzako hainbat enprekin elkarlanean aritu da lanean. 240.732,81 eurokoa (BEZ kanpo) da. Udalak lanak egiteko 115.934 euro jarri beharko ditu.

Nafarroako Gobernuak 201.576 euroko diru-laguntza emanen du eta Mank-en 6.650 euroko beste bat (ur azpiegiturarako lanengatik). Udalak 20.000 euro markesina berria egiteko bideratu ditu.

FESTAK

Etxeberri:

>>> Irailak 5, ostirala

14:00etan Txupinazoa.
14:15ean Herri-bazkaria.
16:00etan Herri-kantak.
16:30ean Herri-Erdi elkarteko mus txapelketako finala eta mahai jolasak.
19:30ean Harrapatuko zaitu eta Etxeberri-ko buruhandien mustutzea.
20:00etan Dj Loable.
21:30ean Pintxo-potea eta atzera pausoa. Hirugiharra, txistorra, tortilla eta goxoen dastatzea.
22:30ean Dantzaldia Dj Loable eta Txep eta lagunuen kontzertua.

>>> Irailak 6, larunbata

11:00etan Etxez etxeko erronda, Irurtzungo trikitilariak alaituta.
17:00etan Herri kirolak.
19:30ean Harrapatuko zaitu eta Etxeberri-



ko buruhandiak.
20:00etan Dantzaldia: Los Andus.
22:00etan Herri-afaria.

00:00etan Dantzaldia: Los Andus.

>>> Irailak 7, igandea

11:00etan Hamaiketako Herri-Erdi elkartean.
12:00etan Mus txapelketa azkarra.
12:00etan Haurrendako ginkana eta gazteendako jolasa.
14:00etan Herri bazkaria eta gazta jokoa.
16:00etan Dantzaldia: Los Andus.
19:30ean Harrapatuko zaitu eta Etxeberri-ko buruhandiak.
20:00etan Txokolate jatea.
20:30ean Txerrikumeen zozketa eta hau pena nik.

>>> Irailak 8, astelehena

12:00etan Meza nagusia, herriko patrioiaren omenez.
12:30ean Otamena.

Hiriberri:

'Ezizen'

>>> Irailak 4, osteguna

20:00etan Txupinazoa.
22:00etan Herri-afaria.
24:00etan Musika Txitera elkartean.

>>> Irailak 5, ostirala

12:30ean Futbol 7.
14:30ean Herri-bazkaria.
16:30ean Mus txapelketa.
17:00etan Haur jolasak eta kilikiak.
20:00etan Otamena.
20:30ean Dantzaldia Gabenara taldearekin.
22:00etan Zezensuzkoa.
00:30ean Dantzaldia Gabenara taldearekin.
4:30ean Gaupasa Txitera elkartean.

Irailak 6, larunbata
12:00etan Puzgarriak.
12:30ean Txaranga.
14:30ean Koadrila bazkaria.
16:30ean Puzgarriak.
17:00etan Elektro-poteoa.
20:00etan Otamena.
20:30ean Dantzaldia Tximeleta taldearekin.
22:00etan Zezensuzkoa.
00:30ean Dantzaldia Tximeleta taldearekin.
00:30ean Mozorroak.
4:30ean Gaupasa Txitera elkartean.

>>> Irailak 7, igandea

12:00etan Pilota partidak.
17:00etan Haurren antzezlan eta txokolate-jana.
19:00etan Dantzaldia Mendiberrirekin.
20:00etan Otamena.
21:00etan Zezensuzkoa.



Ziordia:



Ziordiko festak 2014. Herri mugimendua.

>>> Irailak 4, osteguna.

15:00etan Gazte bazkaria.
19:30ean Txupinazoa eta herriko dantzariak.
21:00etan Arrebote.
22:00etan Herri-afaria.
00:00etan Benation.

>>> Irailak 7, domeka.

Mozorro eguna.
19:00etan Kalejira trikitilariakin.
 Gaia: munduko herriak.
22:00etan Preso eta iheslarien aldeko afaria.

>>> Irailak 8, astelehena.

Krisi eguna.
Egun osoan edaria merkeago eta pikoteoa gaztetxean.

>>> Irailak 5, ostirala. Haurren eguna.

12:00etan Txupinazoa, Juan Mari Urriagaren piztuko du.
 Hamabitakoa.
 Ziordiko trikitilariak.
14:30ean Haurrendako bazkaria.
15:00etan Bazkaria Juan Mari Urriagaren omenez.
16:00etan Haur-parkea.
19:30ean Japoniar-bonbak.
21:00etan Zezensuzkoa.
21:30ean Herri afaria.
 Ziordiko trikitilariak.
00:30ean Los Zopilotes Txirriaos.

>>> Irailak 6, larunbata

11:00etan Hamaiketako.
12:00etan Sakanako trikitilariak eta buruhandiak.
13:30ean Etorkizuna dantza taldea.
17:00etan Txirringululari-proba, Burunda TT-antolatuta.
19:30ean Japoniar-bonbak.
20:00etan Mariachi Cazahuetes.
20:00etan Auzatea.
22:00etan Zezensuzkoa.
01:00etan Dantzaldia Alaiki taldearekin.

>>> Irailak 7, domeka

11:00etan Hamaiketako.
12:00etan Zangitu fanfarrea eta buruhandiak.

13:00etan Herri kirolak. Sakanako Aizkora Eskola.

17:00etan Larri bombo eroa. Zirkoa.
18:00etan Pilota eta pala partidak.
19:00etan Sakanako Haize Berriak Banda.
19:30ean Japoniar-bonbak.
20:00etan Auzatea.
22:00etan Zezensuzkoa.
22:00etan Elkartasun afaria. Etxera.
24:00etan Txumari dj.

>>> Irailak 8, astelehena.

Jubilatu eguna.
11:00etan Hamaiketako.
12:00etan Haur-jolasak, gaztetxeak antolatuta.
13:00etan Meza.

>> Altsasu

Bihar, Intxostiako festak

Altsasuko zabalguneko Zumalakarregi plaza Intxostia auzoko festaren erdigune bihurtuko da atzera ere. Hirugarren urtez auzoki-

de talde bat arduratu da egitaraua prestatzeaz eta horretarako hainbat babesleren laguntza izan du.

Egitaraua

12:00etan Txupinazoa Zumalakarregi plazan.
12:10ean Altsasuko erraldoi eta buruhandien konpartsa.
 Intxostia Txarangarekin kalejira eta herri-poteoa.
12:30ean La Union jubilatutako elkarteko abesbatzaren kontzertua.
 Puzgarriak skate duen plazan eta Zumalakarregi plazan.
13:15ean Japoniar bonbak.

Nafarroako jotak. Castejongo Jota eskolen elkarte.

14:30ean Herri-bazkaria.
17:00etan Puzgarriak skatea duen plazan eta Zumalakarregi plazan.
18:15ean Hodei Magoa, Zumalakarregin.
19:15ean Felixen globoflexia ikuskizuna, skatea duen plazan.
20:00etan Intxostia Txaranga.
22:00etan Zezensuzkoa.
23:00etan Kontzertuak: El Desvan eta Goma.
4:00etan Hau pena nik.

October fest altsasuarra

Atzotik domekara arte, 19:00etatik 24:00etara, garagardo festa Zubeztia plazan

Altsasuko festen aurreko ezinbesteko hitzordua bihurtu da herritar eta sakandar askorendako Zubiondo elkarteak hainbat erakunderen laguntzaz antolatutako garagardo azoka. Garai honetan Alemanian ospatzen den garagardo festen modura, txerri-ukondo, hainbat espeziaduntxerriak, saltxitzez, oilasko-erreez eta abarrez asetzeko aukera izanen da. Jakina Zubeztia plazako karpatik pasatzen direnek garagardo eskaintza zabala jasoko dute.



Zer edan eta zer jan izanen da Zubeztia plaza.

» Altsasu

Emakumeen Bilguneko ikastaroetarako irakasleak behar dira

Altsasuko Udalak jakinarazi duenez, Emakumeen Bilguneko eskainiko dituen lantzeria, jostintza, zeramika, etxerako konponketak eta ehoziri ikastaroetarako irakasleak kontratatu nahi ditu. Interesa dutenek hilaren 12ra arteko epea dute euren eskabidea udaletxeko erregistroan aurkezteko. Informazio guztia www.alsasua.net atarian dago.

»



Bazkaria La Encina elkartearen.

Extremadurako eguneko ospakizunak aurreratuta datoz

La Encinak etziraiko antolatu du egitaraua

Astlehenean ospatuko da Extremadurako Eguna, Guadalupeko Amaren Eguna ere badena. Hori dela eta, La Encina elkarteak domekarako egitaraua prestatu du. Eguerdian abiatuko da ospakizuna San Juan ermitan egiten den mezarekin. Haren ondoren, kanpo-aldean auzatea izanen da. 15:00etan elkartearen egotzan anaitasun bazkaria izanen da. Eguna borobiltzeko lortia kultur gunean antolatu duten Mercedes Cuadrado eta Raices y Brotes-en kontzertuak izanen dira.

Domekako egitarauarekin Altsasuko Extremadurako kultur elkarteak irailarako antolatu ohi duen egitaraua abiaraziko du, festen ondoren segida izanen duena. 14. edizioa da aurtengoa.

Egitaraua

» Irailak 19, ostirala

18:00etan Pregoia: Jon Maia Soria. Sakanako bertsolarien saioa. Lortia kultur gunean.

19:00etan Pedro Peralta eta Perikoren emanaldia lortia kultur gunean.

21:00etan Auzatea La Encina elkartearen.

» Irailak 20, larunbata

18:00etan Miguel Angel Gomez Naharro kantariaren emanaldia lortia kultur gunean.

19:00etan La Union jubilatuta elkarteko abesbatzaren kontzertua.

21:00etan Auzatea La Encina elkartearen.

» Altsasu



Albaola Itsas Kultur Faktoriako arduradunak bisita gidatua eskaini zuen. Azalpenak eta gero herriko artistek ikuskizun polita eskaini zuten. UTZITAKOAK.



Dantzalekuko hariztiaren ibilbide interpretatiboa zabalik

Agorriko azken asteazkenean, udako giro ederrean, mustu zuten Dantzalekuko hariztiaren interpretazio ibilbide berria: *Sakana, haritzaren lurra*. *Basotik itsasora* izena duena. Bertaratu zirenek Albaola, Itsas Kultur Faktoriako arduradunaren eskutik bisita gidatua egiteko aukera izan zuten. Ondoren auzatea egin zen, herriko musikariek giroa; iluntzean, azkenik, Anne Etchegoyen eta Aizko abesbatzak kontzertua eskaini zuten Nafarroako Gobernuaren Kultur programaren barruan.

Ibilbidea XVI. mendeko San Juan baleontziaren errepika erakitzeko proiektuari lotua dagoenez, Donostia 2016 Fundazioaren lehendakari Juan Carlos Izagirrek parte hartu zuen irekiera ekitaldian;

baita egitasmoa bultzatu duten erakunde ordezkariek ere: Xabier Agote Albaola Fundazioaren lehendakaria, Garazi Urrestarazu Altsasuko alkatea, Iker Manterola Sakanako Garapen Agentziako teknikaria eta Isabel Elizalde Cederna Garalurreko kudeatzailea.

Ibilbidearen hasiera Dantzalekun

Ibilbidearen 700 metrotan informazio panelak eta 10 txantilo topatuko ditu bisitariak. Zuhaitzen zurarekin ontzigintzarako lortzen ziren piezak modu ulerterrazean ikusten dira. Haritza galeoiak sortzeko erabiltzen zenean basoen ustiapena egin zen XVI. mendean. Ibilbide honek Altsasun egindako lanketa jartzen du balioan.

Gerora begirako asmoak

Sustatzaileek kultur gune irekia izatea nahi dute: ibilbidean ikusten da azken emaitza, baina asmoa litzateke ikasketa eta ikerketa prozesua abiatzea jakiteko XVI. mendean nola landatzen zituzten zuhaitzak, pieza jakinak lortzeko nola lantzen zituzten adarrak, inausketak noiz eta nola egiten ziren... Ondoren

ren asmoa izango litzateke jakintza hori dokumental batean jasotzea, Sakanako basoak balorean jartzeko azaldu digu Iker Manterolak.

Altsasuko ibilbideak azaltzen du erabilera itsastiarra, baina Sakanako hariztiak hainbat erabilera izan dute mendetan zehar. Hala, hariztien sare bat sortu nahi da gure eskualdean: angio edo dehesaren erabilera edo beste batzuk balioan jartzeko.

Sakanako basoen kudeaketa itsastiarra ezagutaraztea du helburu egitasmoak. Albaola Fundazioaren eta Sakanako eskualdearen arteko elkarlanean oinarritutako proiektu zientifiko eta kulturala da,

eta Donostiaren 2016ko Europear Kultur Hiriburutzaren barnean kokatzen da. Altsasuko Udalak bultzatu du eta Nafarroako Gobernuak eta Cederna Garalurrek Fea derren bitartez diruz lagundu dute.

Sakana Igeriketa taldea

Igeriketa taldea

Igeri egiten badakizu eta estilo, teknika gehi abiadura lortzeko nahian baldin bazabiltza igeriketa taldea klubera etor zaitez, gurekin bat egin eta nafarroako, euskalherriko eta espainako txapelketetan parte har ezazu.

Matrikula garaia ekainaren 1etik irailaren 30 arte (6 urtetik gora)

HELBIDE ELEKTRONIKOA sakanaigeriketataldea@hotmail.com

TEFNOA.: 657 60 93 73-617 53 77 67

Felipe Gorriti

(Uharte Arakil, 1839 - Tolosa, 1896)

Uharte Arakilgo musikariaren jaiotzaren 175. urteurrena



25€

Eskuratu GUAIXErekin musikagile handiaren 5 disken bilduma

bazkideak
22€

eskaerak: bierrik@guaixe.net / 948 564 275 / 948 562 107
oharra: prezioan BEZ barnean dago



Ezkerrean, erraldoia. Goian: Felipe Gorriti organoa jotzen. Eskubian: Felipe Gorritiren jaiotetxea, Uharte Arakilen.

SAKANA

Trenak 150 urte gurean

1862ko apirilaren 15ean iritsi zen aurreneko tren Sakanara, Olaztagutiraino zehazki (tren geltokia porlandegiaren parean zegoen). Miranda de Ebrotik abiatutako baporezko tren trenbide akaberaino iritsi zen. Trenbide linea osoa osatzeko lanak bi urte gehiago luzatuko ziren. Hala, 1864ko agorrilaren 15ean mustu zen trenbidea. 20an jarri zen Ola-

tzagutia eta Beasain arteko zerbitzua martxan, Madril eta Irun arteko trenbidean. Nazioarteko tren zen, Hendaia eta Paris artekoarekin lotura zuelako.

Ordurako Sakana zeharkatzen duen trenbideko lanak aurreratuak zeuden. Zaragoza-Iruña-Altsasu lineako Irurtzun eta Altsasu arteko zatia 1865eko garagarriaren 22an zabaldu zen.

Ondorioak

Hizkuntzan, kulturean, ekonomian, populazioan eta hainbat arlotan aldaketak ekarri zuten trenaren etorrerak. Gipuzkoarako mugarekin egin beharrekotunelak egiteko Piamonteko langileak etorri ziren eta haiekarri zuten trikitixa Euskal Herrira. Bestalde, trenbidea egiteko makina bat trabesa behar izan ziren. Ibarreko basoetatik orduan



Duela bi urte Altsasura etorri zen lurrin makina.

eta aurrerantzean makina bat trabesa atera zituzten. Haren testi-

goz galditu da Altsasuko topnimian: mila trabesako zulo.

>> Etxarri Aranatz

Bihar egingen da erromeria Konzezion

Ospakizuna Ama Birjinaren jaiotzeko bederatziruaren barruan egitea erabaki du kofradiak

Hilaren 8an katolikoek Ama Birjinaren jaiotza ospatzen dute. Horregatik, Etxarri Aranatz agorriaren azken egunetik 8ra arte bederatziruaren ospatzen dute Andra Mari ermitan. Pello Etxabarri Razkin apaizak proposatuta, bederatziruaren larunbatean Konzezioko erromeria egitea adostu zuten kofradiak. Ermita berrituan bihar, 12:00etan, izanen da meza.

Garagarriaren 21ean Konzezioko kofradiako 20 bat kide Andra

Mari ermitan elkartu eta han erabaki zuten ospakizunaren data. Apaizak azaldu digunez, Konzezio eguna berez abenduaren 8an da baina eguraldiagatik data aldatzea erabaki dute. Garagarrieko bileran kofradiak bere estatutuak berritzea erabaki zuten. Aldi berean, hildako kofradeen alde urtero meza ateratzea erabaki zuten. Aurretik, etxarriarreko kofrade egiteko deia egina zieten eta 100 bat dira orain kideak. Urtero 3 euro ordainduko dituzte.

Etxarriarreko joan zen urteko irailaren 21ean egindako elizkizu-



Joan zen urtean etxarriarreko Konzezion elkartu ziren.

narekin batera ikusi ahal izan zituzten Konzezio ermitan aurreko lau urteetan egindako lanak. Ermita

goitik behera zaharberrituta gelditu da. Hura zaintzeaz Konzezioko kofradia arduratuko da.

Zorri Azoka, ostiraletik igandera pasatu dute

Kurtso berriarekin eguna aldatzea erabaki dute Zorri Azoka merkatu sozialeko sustatzaileek. Hori dela eta, heldu den igandean, irailaren 7an egingo da Etxarri Aranatzko plazan ikasturte berriko lehenengo azoka, goizeko 11:00etatik 15:00etara. Sakanako artisauak eta nekazaritza eta abeltzaintza ekoizleak elkartzen dira egitasmo horretan. Euren mozkinak salgai jartzen dituzte. Gainera, hilero ibarrekoak ez diren ekoizle bat edo bi gonbidatzen dituzte. Aurrerantzean hilaren lehenengo igandearrekin egingo dute Zorri Azoka.

>> Altsasu



Peñak jarraipena ziurtatuta duela dirudi.

Mutiko Txikiak 40 urte handiago

Altsasuko festetako astelehenean goizetik iluntzera arte parranda ona egiteko egitaraua antolatu dute Altsasuko Mutiko Txikiak peñakoek: diana, hamaiketako, poteoa, zikiro bazkaria, kalejira eta beste. Izen-ematea irailaren 9ra arte egin daiteke Vasconia banke-txean (40 euro).

40 urte alferrik pasatu ez direnez buru-belarri ari dira Mutiko Txikien peñako kideak urteurren eguna prestatzen. Hala, ospakizunak merezi duelako, puntako txa-

ranga ekarriko dute herrira: Tolosako Incansables musikari alai eta nekazariak. Bazkaria ere primerakoa agindu dute: zikiro erre.

Urteurrena mimoz prestatu dute eta nahi duen guztiak izena eman dezake. Antolatzaileek azaldu dutenez ez da beharrezkoa Mutiko Txikiak peñako kide izatea. Hori bai, festagiroan egun on pasa pasa nahi duenak asteazkea baino lehen apuntatu beharko da. Izena ematen duten guztiak zapi bat jasoko dute.

SAKANA

Ibarra motor gainean

Nafarroako Gobernuak erkidegoan barnako 10 ibilbide prestatu du eta haiei buruzko informazioa Nafarroako Zirkuituko motoziklista eta erabiltzaileen artean zabaldu du www.navarider.es webgunearen bidez. Hiru ibilbidek Sakana zeharkatzen dute

Kultura, Turismo eta Erakunde-ekiko Harremanetarako Departamentuak Nafarroako errepide nagusietan eta bigarren mailako errepideetan motorrean egiteko 10 ibilbide prestatu ditu eta, haiei esker, Nafarroako txoko berezian ezagutarazteko. Webguneak ere turismo-baliabideetan on-line erreserbak egiteko aukera ematen du Navarra Booking erreserben plataforma erabiliz.

Euskaldunendako ez

Web orrian euskararen arrastorik ez dago.



Motorzale topaketa Altsasun.

Hamar ibilbideetako hiruk Sakana zeharkatzen dute. El Bacalao (185 km) ibilbidea Iruña du abiapuntu eta motor gidariak Arbizu, Lizarrusti, Idiazabal, Altsasu, Urbasa eta Lizarra zeharkatuko dituzte irteera puntura iristeko. El Bebé (171 km) ibilbidearen abiapuntua ere Iruña da. Motorzaleek hari segituz Olague, Ultzama, Doneztebe, Leitza, Lekunberri,

Irurtzun eta Muskitz zeharkatuko dituzte Iruñera bueltatzeko. Azkenik, El Tiburon (201 km) ibilbidea dago. Iruñetik abiatuz Belaten barna motorzaleak Donostia-ira iritsiko dira Leitza eta Irurtzundik barna hiriburura bueltatzeko.

BIKAIN
GARAJEA, S.A.L.
948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

**Mekanika
Elektrizitatea
Txapa
Margotzea**

Erabiltzaileentzako

FLORES S.L.
Nafarroako berezko txistorrak izen bat du
Txistor ekologikoa

Uztuzar Industriak - Rlf. - Faxa: 948 460 499 41053211



Nonerabili

KAXETA

ETXARRI ARANATZ
% 5eko deskontua irakurketako liburuetan.

KATE INFORMATIKA

IRURTZUN
% 5eko deskontua 30 €tik gorako erosketan.

BAIZA MOTOR

ETXARRI ARANATZ
Eskaintza bereziak.

KALUXA TABERNA

URDIAIN
Menu edo plater konbinaturekin kafea edo txupittoa doan, menu bereziarekin kafea edo kopa doan

CITROËN SAN MIGUEL

ALTSASU
Total oliotetan % 30eko deskontua. Pneumatikoen aldaketetan % 20 deskontua.

IRUBIDE JATETXEA

ALTSASU
Gosaria (kafea+pintxo edo bolloa+laranja zuku naturala) 2,50€.

SAKANA OPTIKA

ALTSASU
%15eko deskontua graduatutako betaurreko osoetan (montura+lenteak). %10eko deskontua beste edozein artikulutan eta ikusmenaren errebisioa doan.

NUEVA IMAGEN

ALTSASU
%10eko deskontua edozein zerbitzutan.

ARRUAZUKO OSTATUA

ARRUAZU
Asteburuko menuarekin, kafea edo txupittoa doan.

LOGURE

ALTSASU
%20ko deskontua (eskaintza berezietan izan ezik).

www.guaixe.net-en zerranda osoa ikusgai



>> Uharte Arakil

Artzain Eguna, huts egin gabe

Bost gazte onenen artean Sakanako hiru sailkatu ziren

Ia mendeerdiz urteroko hitzordua bihurtu da Uharte Arakilgo Artzain Eguna. Agorriko azken igandeak, atzera ere, jendetza erakarri zuen Uharte Arakilera. Horren adierazle, herri sarreretan izan ziren auto-ilarak. Eguraldia lagun, Uhartaren elkartutako jendetzak artzaintzaren gorazarerako egunaz gozatzeko aukera izan zuen. Aurreikusitakoa betetzeko 150 bat pertsona egon ziren antolakuntzan lanean.

Lehiaketak

Bazkaldu aurretik jakin min handia pizten du ardi-esnez egindako gaztaren enkanteak. Haren aurretik, epaimahaiak gazta lehiaketara aurkeztutako 26 gaztak dastatu zituzten (joan zen urtean baino bat gutxiago). Aurreko bi urteetan bezala saria Eulateko Rikardo Remirok eskuratu zuen. Seitan izan da bere gazta onena Uharte Arakilen (2006, 2008, 2010, 2012, 2013 eta 2014. Bere aitak 1993an irabazi zuen).

Gazta erdiaren enkantean Uharte Iruñeko Ábaco eta Iruñeko Alhambra jatetxeetako ordezkariak lehiatu ziren. Azkenik, eskaintza handiena Uharte-Iruñeko Arte Garaikideko Zentroan dagoen jatetzeko Jesus Iñigo Lurik



Omenaldiko unea.

egin zuen, 4.350 euro (pasa den urtean baino 50 euro gehiago).

Arratsaldean artzain-txakuraren abilezia txapelketa jokatu zen. Geinberako zelaian Antonio Alustiza izan zen bere txakurrak hobekien gidatu zituenak eta Jairekin txapela jantzi zuen eta Batekin bigarren postua eskuratu zuen. Finalean Jose Mari Itxilariti eta Jorge Oteizari nagusitu zitzaizkien Alustiza. Uhartaren 15etan jantzi du Alustizak txapela eta Patxi Etxeberrriaren marka berdindu du. Lehiaketak gonbidatu berezia izan zuen: Aldudeko (Behe Nafarroa) Marcel Hualde. Seigarren merinaldeko ordezkari gisa aritu zen.

Omenaldiak

Atzokoan Aralar Mendi elkarteak Mixel Lekuonak eta Jose Agirrezabalek omendu zituen. Lehen, Biriartun jaioa, apaiza eta irakaslea, gazta egiteko moduak ikertu eta zabaldu zituen. Oroigarria haren iloba Xabatek jaso zuen. Bigarrena Hiriberriko albaitaria zen eta artzain txakur txapelketa sustatu zuenetako bat izan zen. Hark egindako lanari esker ona adierazi nahirik senideei oroigarria eman zien Aralar Mendi elkarteak. Josep Riu ere gogoan izan zuen antolakuntzak. Hark Ribes de Freser herrian estatuko lehen artzain txakur lehiaketa antolatu zuen.



Gazta txapelketako epaimahaikideak.



Ardiki lehiaketako parte hartzaile bat.



Ardimotzailea lanean.



Artisauek ez zuten huts egin aurtengo Artzain Egunean.

Sariak

XXXIII. Gazta txapelketa

1. Ricardo Remiro, Eulate.
2. Balda-Artola, Unanu.
3. Manuel Bengoetxea, Urdazubi.
4. Ostiza SC, Urdiain.
5. Araña-Etaio SC, Arbizu.
6. Agirre anaiak, Aranaratxe.
7. Etxetxipia, Elizondo.
8. Angel Linzoain, Irategi.
9. Sat Antsoetenea, Uztegi.
10. SAT Gorramendi, Arizkun.
11. Ibarborda, Unanu.
12. Jose Fermin Balda, Gorriti.

XXVII. Ardimotzaileen txapelketa

1. Luis Sorrosal, Mediana (Zaragoza).
2. Jaime Colera, Mediana (Zaragoza).
3. Rafa Beorlegi, Irunberri.

XX. Ardiki txapelketa

1. Gazteluleku, Iruña.
- Parte-hartzaileak:
Itxesi jatetxea, Uharte Arakil.
Iturralde elkarte, Dorrao.
Catering Zubillaga.
Aralar Mendi elkarte, Uharte Arakil.

XLVII. Artzain-txakur txapelketa

1. Jai, Aresoko Antonio Alustizarena.
2. Bat, Aresoko Antonio Alustizarena.
3. Arakil, Oronoz-Mugaireko Jorge Oteizarena.
4. Lagun, Amaiurko Jose Mari Itxilarrena.
5. Azeri, Oronoz-Mugaireko Jorge Oteizarena.
6. Alai, Aranoko Pedro Ansarena.
7. Katy, Javier Fernandezena.
8. Lagun, Uharte Arakilgo Antonio Uharrena.

Euskal artzain txakur onena

1. Lagun, Uharte Arakilgo Antonio Uharrena.
2. Lagun, Amaiurko Jose Mari Itxilarrena.

Hobekien jantzitako artzaina

Aranoko Pedro Ansa

Hobekien Hezitako artalde

Antonio Uharren 1. artaldea.

XXXI. Latxa ardiaren esne ekoizpen txapelketa

Arkume burugorriak

1. Isidro Bazterrikarena.
 2. Lopez Azpilikuetaarena.
 3. Xabier Zelaiaarena.
- Sari berezia: SC Loperena.

Arkume arpeztzak

1. SC Irigoienena.
2. Loperenarena.
3. Josu Ollorena.

Arkume heldu burugorriak

1. Lopez Azpilikuetaarena.
2. Isidro Bazterrikarena.
3. Xabier Zelaiaarena.

Arkume heldu arpeztzak

1. Josu Ollorena.
2. SC Loperenarena.
3. Jose Angel Azpirozarena.

XXXI. Latxa ardiaren lehiaketa morfologikoa

Bi urte baino gutxiagoko burugorriak

1. Manuel Bengoetxeaarena.
2. Lopez Azpilikuetaarena.
3. Jokin Labaien.

Bi urte baino gutxiagoko arpeztzak

1. Patxi Zalbarena.
2. Patxi Zalbarena.
3. Marco Garcesena.

Bi urte baino gehiagoko burugorriak

1. Manuel Bengoetxeaarena.
2. Juan Jose Irigarrena.
3. Xabier Zelaiaarena.

Bi urte baino gehiagoko arpeztzak

1. Eugenia Bazterrikarena.
2. Eduardo Bidaurrearena.
3. Irigoien Rekarrena.





GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 564 355
679 160 116
(24 ORDUZ)

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

www.tanatoriosirache.com

Oroigarriak



Guaixe
KOMUNIKAZIOA

948 564 275



Hainbat aukera

Galdetu

948 564 275



Enekoitz Mendiola Barandalla

2014ko abuztuaren 28-29an hil zen
Premiá de Mar-en (Bartzelonan) 41 urte zituela.

Aunitz maite duenak aunitz sufritzen du

Aita amak: Jexus (+) eta Puri; arrebak: Marian, Fermiña, Jaxone eta Kitz; ezkon anai-arrebak: Txus Congil (+) eta Iñaki Arratibel; ilobak: Ekhi, Xuban, Amaiur eta Joritz; Frantsiseneko eta Jeingeneko osaba-izebak eta lehengusubek.

Elizkizuna gaur, ostirala, arratsaldeko zazpitan Etxarriko elizan.

Etxarri Aranatzen 2014ko irailaren 8an.

Oharra: Eskertuko genuke saminaren mina zaintzea.


guaixe.iragarkilaburrak.com

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldue/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net



Enekoitz Mendiola Barandalla

Zu farrangatik eskerrik asko

Adiskide bat bazen orotan bihotz-bera, poesiaren hegoek sentimentuzko bertsoek antzaldatzen zutena.

Hesia urraturik libratu huen kanta, lotura guztietatik gorputzaren mugetatik aske senditu nahirik.

Frantsiseneko osaba-izebak eta lehengusubek

Lana/ Negoziak

LAN ESKAINTZA

Ingeles klaseak **Urdiainen**. Informazioa 626 34 02 76.

Ikastaroak

Komunikazioa, autoestimioa eta emozioen kontrolen tailerra. Lara Ahimsa Ribera (jungiar psikologoa eta idazlea) eta Olga Martinez de Lagran (psikologian doktorea eta osasun-psikologoa)ren eskutik. Urrian, Etxarriko Kultur Etxean. Deitu 639 40 81 18 telefonora.

AES. Berria Enpresarako ingelera, irailean; "Ingelera elkarrizketa praktikak", Arbizun, 40 ordu, azaroa-abendua; ETEi aplikatutako trebatasun pertsonalak, Arbizun, abenduan "Planoen interpretazioa eta ordenagailuz lagundutako diseinua", Altsasu, 60 ordu, urria-abendua; "Adimen emozionala", Arbizun, 30 ordu, iraila-urria; Informazio gehiago: 948 46 83 07 eta formacion@aesakana.com

IFESek hainbat ikastaro antolatu ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: [izen ematea http://www.ifes.es](http://www.ifes.es)

Forem Navarra – CCOO ikastaroak. Informazio gehiago: www.foremnavarra.org

AIN-consulting ikastaroa. Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta formacion.ain.es/

Oharrak

Dohaneko aurkezpen hitzaldi informatiboa.

"Ikasi zure burua elikatzen eta antsietatea kontrolatzeko teknikak". Irailaren 24an 19.00etan Etxarriko Xalok Zentroan. Hitzlariak: Ana Carmen Huarte eta Olga Martinez de Lagran. Asistentzia konfirmatu 639 40 81 18 telefonon.

Saharaztan boletoen zenbaki sarituak. 1213-2151-2385-0109-3101-1026-3100-3173-0964. Mila esker zuen laguntzagatik.

Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko. Diru bilketa hasi dute, Ahotsa behar dugu lelopean. Ekarpenak kontu korrantean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo <http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu> bidez egin.

Tartalariendako laguntza. Laguntza ekonomikoa Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrantean sartu daiteke.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korrante hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Haurren erritmoak errespetatzen dituen eskola librea. nahi baduzu, deitu 661- 59 04 20 telefonora.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago:

www.euskonews.com/laguntza
euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

Sukaldaritzak - trukea. Informazio gehiago larrezabaldek@inigoaritzak.com

3MBk kontu korrantea zabaldu du. Rural kutxa eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosfosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosfosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixetxartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez,

Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoaren inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrantea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkarte eta denda. Sakanako produktu ekologikoen zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri.

Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezti, arrautzak, garga-ardoa, lekaleak, ozpina... Informazio gehiago: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarriko jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehasak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldako tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora era-

man: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenean. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalak, eta baita etorkin beraie ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzen, astearteetan Irurtzun eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazio@sakanamank.com posta elektronikon.

Gazteendako sexualitate aholkularitza. Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intoxiapunta gazte gunean (Burunda kaletik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

JAIOTZAK

- **Andoni Moral Razkin**, ekainaren 30ean Irurtzun.
- **Miren Malpartida Plaza**, uztailaren 31n Altsasun.
- **Mara Prieto Martin**, abuztuaren 8an Altsasun.
- **June Agirre Palop**, abuztuaren 4an Arbizun.
- **Ander Blanco Lumberras**, abuztuaren 12an Altsasun.
- **Izar Razkin Arrizabalaga**, abuztuaren 14an Arbizun.

- **Alazne Bravo Vilches**, abuztuaren 14an Irurtzun.
- **Aret Auza Eraso**, abuztuaren 17an Irurtzun.
- **Jule Galarza Mariñelarena**, abuztuaren 19an Irurtzun.
- **Hasnae Hamdi Hamdi**, abuztuaren 20an Irurtzun.
- **Islam Shayak**, abuztuaren 20an Altsasun.
- **Daniel Alexander Agirre Faragau**, abuztuaren 25ean Urdiainen.
- **Javier Lizarraga Olaetxea**,

abuztuaren 30ean Irurtzun.

EZKONTZAK

- **Santiago Alonso Millan eta Marlene Florencia Uhanca**, uztailaren 17an Altsasun.
- **Gemtil Kazadi Kapombo eta Leyre Lopez Garcia**, abuztuaren 16an Irurtzun.
- **Maik Eler eta Raquel Arroyo Barbero**, abuztuaren 23an Altsasun.

HERIOTZAK

- **Benjamin Apestegia San Roman**, abuztuaren 1ean Olaztin.
- **Encarnación Gomez Melendez**, abuztuaren 3an Altsasun.
- **Maria Sanchez Pastor**, abuztuaren 3an Altsasun.
- **Daniela Saldaña Albillos**, abuztuaren 10ean Altsasun.
- **Juan Jose Ruiz Ripalda**, abuztuaren 12an Irurtzun.
- **Dominica Leiza Reparaz**, abuztuaren 21ean Arbizun.

- **Ezequiel Vesga Vesga**, abuztuaren 22an Olaztin.
- **Felix Igoa Garziandia**, uztailaren 24an Etxarri Aranatzen.
- **Maria Camino Orkarai Irurtzun**, abuztuaren 29an Irurtzun.
- **Francisco Imaz Bengoetxea**, irailaren 1ean Olaztin.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

PILOTA

BAKAIKOA FINALISTA: Gazte mailako Javier Hernandez Memorialeko finalerdian Joanes Bakaikoak eta Olaizola III.ak 22-10

irabazi zieten Peñari eta Urizarri. San Fermín Txikitotan jokatu den finalean Aitor eta Oier Etxeberriaren kontra ariko dira.

Pilota

Pilota festak segida du Burundan

45. OTADIKO KRISTO DEUNA PILOTA TORNEOKO 2. FINALERDIA JOKATUKO DA BIHAR, LARUNBATEAN, 22:00ETAN. LEHEN FINALERDIA, GORRITIK HANKAZ GORA JARRI ZUEN BURUNDA PILOTALEKUA

45. Otadiko Kristo Deuna Pilota Torneoa. Lehen finalerdiko emaitzak:

Jubeniletako buruz burukoa:

Espinal 18 / Andueza 9

22 urtez azpiko lau t'erdia:

Errandonea 18 / Ansa 7

Elite mailako binakakoa:

Elezkano I.a -Gorriti 22 / Azketa-Lasa 20

45. Otadiko Kristo Deuna Pilota Torneoa. 2. finalerdia

Bihar, 22:00etan, Altsasuko Burunda pilotalekuan
Jubeniletako buruz burukoa: Laso / Olaizola

22 urtez azpiko lau t'erdia: Bakai-koak / Larunbe

Elite mailako binakakoa: Ontsal-olizoa / Azpiri-Irusta


Pilotari afizionatuak ikusteko aukera izanen da bihar ere Altsasun. SDA

lehendabizikoa izan zen jaun eta jabe (18-9). 22 urtez azpikoan lau t'erdian lehiatu ziren Errandonea eta Ansa. 2013ko Otadiko Kristo Deuna txapelketan jubeniletan lehiatu zen Errandonea, buruz buru, eta orduan txapelketa izan zen Bakaikoari 13-18 irabazita. Bada, Errandoneak Altsasuko final handian egotea lortu du, 7 tantotan utzi baitzuen Ansa.

Bukatzeko, elite mailan binaka lehiatu ziren Elezkano I.a-Gorriti eta Azketa-Lasa. Partida ikusgarria izan zen. Hasieran Azketa eta Lasa aurreratu ziren. 10 tantoko erren-

ta izan zuten, 2-12, baina Elezkano jokoan sartu zen, oso seguru jokatu zuen Gorritiren laguntzarekin, eta gauzak zeharo aldatu ziren. Uharte Arakilgo atzelaria izan zen partidako onena. Tantoak pilotzen hasi ziren, baina hala ere 10-18 aurreratuta zeuden Azketa eta Lasa. Elezkanok eta Gorritik ez zituzten besoak jaitsi eta erremontada ikusgarria lortu, eta 22-20 irabazi zuten.

Bihar, larunbatean, bigarren finalerdia izanen da jokoan, 22:00etan. Tardean, Joanes Bakaikoak etxarriarrak Larunbe izango du aurkari.

Larunbatean hasi zen Sociedad Deportiva Alsasuak antolatutako 45. Otadiko Kristo Deuna Pilota Torneoa. Burunda pilotalekuan giro ederra izan zen. Lehen finalerdiko partidek emozio handia izan zuten, binakakoak bereziki. Jubenil mailan buruz buru aritu ziren Espinal eta Andueza, eta

Pala

Etxarriko I. Pala Txapelketa Mistoa antolatu dute

GURE PILOTA ESKOLAN EDO KAXETAN EMAN BEHAR DA IZENA, IRAILAREN 14A BAINO LEHEN

Etxarri Aranazko Udalak, Aukera Berdintasun Batzordeak eta Etxarri Aranazko Gure Pilota Elkarteak Etxarriko I. Pala Txapelketa Mistoa antolatu dute. Izenak dioen bezala, txapelketan bikote mistoek eman beharko dute izena, gizonetzko batek eta emakumezko batek. Helburua emakumea eta pilota sustatzea da.

Bi ekimen: Pala Txapelketa Mistoa eta erakusketa

Etxarri Aranazko Udalak Emakumeen Pala Eskolak egindako lana eskertu nahi izan du aurten. Aipatu taldeak jaurti zuen Etxarri Aranazko festak iragartzeko txupinazoa. Etxarriko Ferietara begira, omenaldi horri edukia eta jarraipena eman nahi zaio, eta horretarako bi ekimen antolatu dira. Lehena aipatutako Etxarriko I. Pala Txapelketa Mistoa da.

Izena emateko

Irailaren 14a baino lehen, Gure Pilota elkarteak (Migel Aristorrena: 948 567 086, 657 740 362) edo Etxarri Aranazko Kaxetan.

Bikote mistoek eman dezakete izena. Partidak irailaren bigarren hamabostaldian jokatu dira eta final handia Ferietan. Bigarrenik, Emakumea eta Euskal Pilota erakusketa ikusgai jarriko da Etxarri Aranatzan. Aipatu erakusketan XX. mendean mundu osoko frontoi garrantzitsuenetan emakumeek izandako presentzia erakutsi nahi da, eta baita Etxarriko Pala Eskola ere bai. Irailaren 22tik urriaren 3ra bitartean egongo da ikusgai aipatu erakusketa, Etxarri Aranazko Kultur Etxean.



Txapelketaren kartela.

>>

Zabaletaren eta Ezkurdiaren uda

Ongi doakie uda Sakanako pilotari. Berriki jokatu Donostia Hiria Torneoko finalean Juan Martinez de Irujok eta Jose Javier Zabaletak 22-12 hartu zituzten menpean Olaizola II.a eta Ibai Zabala, partida ikusgarria. Etxarrengoa izanzen partidako jaun eta jabe. Torneoko pilotari onenaren saria lortu zuen.

Bestalde, Gasteizen Joseba Ezkurdia eta Merino II.a igo ziren podiumaren gorenera. Gasteizko Andre Maria Zuriko final handian arbizuarrak eta errioxarrak 19-22 irabazi zieten Urrutikoetxeari eta Albisuri. Ezkurdia eta Merino erregularragoak ziren eta horri esker jantzi zuten txapela.

Zabaleta Lekeitioko Finalean eta Zubietak bidean

Aitor Zubietak maila ona eman du baina, tamalez, ezin izan du trofe-



orik ekarri. Zarauzko Torneoko finalerako sailkatu zen Irujorekin batera, baina Aimar Olaizola eta Zabala 22-17 gailendu zitzaizkien.

Bestalde, Lekeitiko finala jokatzean egon da etxarriarra. Xalarekin osatu zuen bikoa, Irujoren eta Zabaletaren kontra. Nahiz eta partidaren Xalake eta Zubietak aldenabarrena lortu, azkenean 22-21 gailendu ziren Irujo eta Zabaleta, bi erabaki polemiko tarteko. Gaur, 17:00etan, finala jokatu dute Urrutikoetxeari eta Albisuren kontra.

Botxa

Irurtzungo Haur Botxa Txapelketa arrakastatsua



34 partaideren artean goikoak izan ziren finalista.

Urtero bezala, Irurtzungo Aizpea euskara taldeak Irurtzungo Haur Botxa Txapelketa antolatu du. Eki-menarekin botxa kirola eta euskararen erabilera bulkatu nahi zen. 34 partaidek eman zuten izena, bi mailatan.

Lehenengo kategorian Aitor

Albizuk, Lucia Sagardiak eta Julen Martiarenak osatutako taldeak irabazi zion Ane Berazak, Enara Urrak eta Markelek osatutakoari. Eta, bigarren finalean, Yago Albizu, Julen Martirena eta Mikel Arregi gailendu zitzaizen Davidi, Daviki eta Ikerri.

Piragua-espeleologia

Piraguan eta espeleologian murgiltzen

Mank-ek antolatutako ikastaroen balorazio positiboa egin dute

Uztailearen bukaeran eta abuztuaren hasieran gauzatu ziren Sakanako Mankomunitateko kirol zerbitzuak antolatutako piragua eta espeleologia ikastaroak. Sakana Experienceko Jon Goñik gidatu zuen piragua ikastaroa. 3 egunetan ibili ziren piraguan murgiltzen Burunda ibaian, Etxarri Aranatz parean, eta par-



Piraguak prestatzen.

taideek balorazio ona egin dute. Espeleologia ikastaroan Olaztiko Laminatutur eta Larraonako Cristinos kobazuloetako barrenean murgildu ziren partaideak, Sakana Experienceko monitorean. Oso gustura egon zirela nabarmendu dute partaideek.

#VueltaSakanan

Vueltak Aralar bete zuen

Milaka zale bildu zen Uharteko pistan Aralarako santutegian Fabio Aruk irabazitako etapa ikusgarria jarraitzera. Ibilbidean euskal ikurrak izan ziren nagusi eta marea laranjaren tokia Rural Kutxaren marea berdeak bete zuen.

Asteazkeneko eguraldi bikainarekin gure bailarako paisaia zoragarriak are politago ikusi ziren Vueltako etaparen zuzeneko emanaldian. Perico Delgado eta Carlos de Andres liluratutazeuden gure mendizerrekin, baina bereziki Beriainekin. Beriain izan zen, akaso, txirrindulariez gain etapan gehien erakutsi zuten irudia. Aralar santutegia baino gehiago. Irudi ikusgarri horiek hartzeko puntako teknologia erabili zuten: kamarak, helikopteroak eta beste. Dron bat ere lanean ikusi genuen.

Asteazkeneko etapa

Tropela Lizarragako portu ikusgarritik sartu zen Sakanara. Uharteko porlanezko pista gogorretik San Migelera igo zen tropela. Etapa ikusgarria, zaleen nahiak guztiz ase zituen.

20. kilometroko erorikoarengatik Nairo Quintanak Vueltan utzi behar izan zuen eta hori oso gogorra izan zen Jose Luis Arrietak zuzentzen duen Movistar taldearendako. Etapa jaioterrian bukatzeak ilusio handia ematen zion uhartearrari, baina Quintanaren erretiroak eguna zapuztu zuten berari eta talde berean aritzen den Imanol Erbiti txirrindulari ihabardarra. Orain Valverdekena da duten aukera.

Eguneko ihesaldian Rural Kutxako Peio Bilbao sartu zen, Kiriyenka eta beste hiru txirrindularirekin batera. Lizarragako Gainean Kiriyenkak atzean utzi zituen gainontzekoak eta bakarrik iritsi zen Uharteko pista hasierara. Baina Aralarako igoerak erabaki zuen. Faboritok Kiriyenka harrapatu eta oilarren borroka eman zen, Gesinken saiakerak tarteko. Contador eta Valverde bizkarrak zaintzen aritu ziren. Azkenean, Astana taldeko Fabio Aru italiarrak eraso jo zuen eta bakar bakarrik iritsi den San Migelera, Alejandro Valverderi, Purito Rodriguez, Contadorri eta Froomei 6 segundo aterata. Movistarreko Imanol Erbiti 62.a izan zen, 8:14ra. Txirrindulari guztiek Aralarako igoeraren gogortasuna nabarmendu zuten.

Sailkapen orokorrean eta atzoko Logroñoeko etapa laua kontuan hartu gabe, Contadorrek 20 segundo ateratzen zizkion Valverderi eta 1:08 Rigoberto Urani. Imanol Erbiti 89.a da, 1:03:04ra. Oraindik Vueltan asko geratzen da.

Rural Kutxaren marea berdea

Bazen beste kolore bat guztien gainetik nagusitu zena. Rural Kutxaren berdea. Desagertutako Euskal-



Fabio Aru italiarrak irabazi zuen etapa, azken maldetan eraso gogorra jo eta gero.

telen marea laranja –ildo honetan Egoi Martinez, Pablo Urtasun, Gorka Verdugo eta Jorge Azanza oso gogoan izan zituzten zaleek –marea berdean bilakatu zuen Sakanatik sortutako Rural Kutxa-Seguros RGAk. 9.000 kamiseta egin zituzten eta dohain banatu zituzten Uharteko Arakilen, Guardetxan eta Aralarren. Helburua lortu zuten, jende guztiak jantzi baitzuen kamiseta. Horretaz gain, Rural Kutxak festatxo ospatu zuen Uharteko Arakilen. “Vueltan Aralarren despidituko zela eta, Uhartean zerbait egitea erabaki genuen. Plazan etapa jarraitzeko pantaila erraldoia jarri genuen, kamisetak oparitu eta tabernatxoak jarri genuen. Tabernan lortutako Uharteko Arakilgo Udalarik emango diogu, herriari” adierazi digu Uhar-

te Arakilgo Rural Kutxako bulego zuzendari Iñakik. Bestalde, Rural Kutxa-Seguros RGA taldeak Vueltan bukaerara arte geratzen diren kilometroak, 1.745, elikagai kilometan bilakatu zituen eta 1.745 kilo jaki eman zizkion Nafarroako Elikagai Bankuari. Gainera, Bizikleta Solidarioa antolatu zuten.

Errebindikazio asko

Ibilbidean mota guztietako pintadak ikusi ahal izan ziren. Euskal Herria nazioa dela, presoak euskalerriratzea eta beste hainbat errebindikazio ikusi ziren. Aipatzekoa ere Iruñeko udaltzainek egindako salaketa, Mayak eta Simonek Iruñeko udal polizia “akutzen” ari zirela baitzioten hainbat pintada eta kartelek.

Bestalde, aipatzekoa da Guardia Zibilarren presentzia nabarmena Vueltan guztian barna. Beraiek izan ziren segurtasunaz arduratu zirenak, Foruzainen kaltetan.

Euskararen presentzia bermatu zen

Hainbat talde eta eragilek, tartean EH Bilduk eta Uharteko Arakilgo Udalak berak, euskararen presentzia bermatzeko eskaera egin zioten Unipublici. Eta aipatzekoa da antolakuntzak euskararen presentzia bermatu zuela. Podiumeko esatari lanetan Vueltako speaker Juan Mari Guajardo altsasuarrak gain, Euskadi Irratiko Arrixe Iribar kirol kazetaria aritu zen, Guajardo gaztelaniaz eta Iribar euskaraz. Bikain egin zuten Vueltaren

Laburrean

Milaka zale Aralarren: Jendetza bildu zen Vueltan ikustera, Uharteko Arakilgo pistan bereziki. Milaka zale-tuk bete zuten bidea. Asko auto-karabanan igo ziren bezperatik, beste asko txirrindulan eta gainontzekoak oinez.

Euskal ikurrak: Euskal ikurrak izan zirela nagusi ibilbide guztian barna. Aipatzekotan, lau eskalatailek Aralarren zintzilikatutako pankarta erraldoia, “Freedom for the Basque Country” eta ikurriña eta Nafarroako bandera agertzen zena, eta Etxarri Aranzko fatxada batean zintzilikatutako ikurriña erraldoia eta Nafarroako bandera erraldoia.

Partxeok: Uharteko Udalak prentsaurreko bidez pistaren egoera txarra salatu zuen, Vueltan pasatu baino 8 egun lehenago. Zerbait gertatu gero, Vueltako antolatzaile Unipublic eta Nafarroako Gobernua egin zituen erantzule. Azkenean, pitzadura nabarmenak, lauzpabost inguru, porlanez estali zituen Unipublicek. Bestalde, Lizarragako tuneleko hormak txuriz margotu zituzten, eta proba bertatik pasatzerakoan DYK tunela argiztatu zuen.

Aralar eta Burunda: Sakanako Aralar eta Burunda klubetak neska-mutikoei talde argazkia atera zuten podiumean eta helmugan, Guajardoren laguntzarekin.

emisioa, maila berean. Guajardo pozik zegoen Vueltan Aralarren zegoelako. “Etxean egoteak, non eta Aralarren gainera, izugarri pozten nau” zioen egun horretan urteak betetzen zituen altsasuarrak.

Patxi Cia 24 ordutan 10 aldiz igo eta jaitsi zen San Migelera



UTZITAKOA

Astearteangoizeko 10:00etan hasi zen Patxi Ciaren erronka solidarioa, 24 ordu barru despiditua zena. Tarte horretan San Migelera ahalik eta aldi gehienetan igotzea zen asmoa. Helburua AFAN elkartearendako (Nafarroako Alzheimer Gaixoen Familien Elkarte) diru lortzea zen. Ciak MSC Power Bikes taldeko lan-kideak izan zituen alboan, eta Lac-

turaleren babesa. Lacturaleko presidentea Juanma Garro etxarrendarrak irteeran lagundu zion, gaurdian ere, eta ez zuen helmuga ere galdu nahi izan. Guztira San Migelera 10 aldiz igo eta jaitsi zen Cia. AFAN elkarteak elkarte honetako txapeldunaren maillota jantzi zion. Ekimena Alzheimerrekin duen amari eta gaixoei eskaini zion.

ESAITen protesta



Vueltaren “erabilera politikoa” salatu zuten igandean

Euskal Selektzioaren Aldeko Iritzi Taldeak, ESAIT-ek, deialdia egin zuen igandean, Artzai Egunean, “Vueltaren erabilera politikoa” salatzen. 100 txirrindulari inguruk bat egin zuten deialdiarekin. Goizeko 11:00etan Uharteko Arakilen bildu eta Aralarrean igo ziren,

atzeri ere Artzai Egunean murgilduta zegoen Uharteko herri guneraino jaisteko. Hasieran eta bukaeran “Kirolaren erabilpen politikoa ez, laguntza gehiago bai” leloa zuen pankartarekin euren salaketa egin zuten. Horretaz gain, Vueltako etapan euskal sinbologiako ikurrak erabiltzeko deia egin zuen ESAIT-ek.

#VueltaSakanan



Milaka zaletu bildu ziren Uharte Arakilgo pistan.



Txirrindulariak txalo artean iritsi ziren helmugara.



Ikuspegia primerakoa zen.



Etxarri Aranazko pasaera zuzenean ematerakoan airetik hartutako irudiak eman zituzten. UTZITAKOA



Ikurriña oso presente egon zen Etxarri Aranatzen.



Txirrindulariak azken ahalegina egiten, Beriain atzean zutela.



Txirrindulariak Aralarko azken maldetan gora, ikusleen animoen artean.



Sakana eder-eder ikusten zen.



Aralarko santutegian azpiegitura handia prestatu zuen Unipublicek.



Txirrindulariak aipatu zuten bezala, oso gogorra egin zitzaion igoera.

#VueltaSakanan



Uhartan pantaila erraldoia jarri zuten.



Aimar Zubeldia Aralarra bidean.



Juan Mari Guajardo, pozik.



Etxarriko gazte kuadrila bat.



Eskalatzaileek jarritako pankarta.



Zaletu gazteak Uhartan.



Koadrila bat Aralarren.



Burunda klubekoen argazkia.



Aralar Klubekoak podiumean.



Txirindulariak gorako bidean.



Txirindulariek zaleen animuak gogoz eskertu zituzten.



Ikusle ugari bildu ziren sari ematean. Aruk, Contadorrek, Valverde, Bonetek eta Kiriyenkak txalo ugari jaso zituzten.



Bazkari ederrarekin eta musikarekin laburragoa egin zuten tropelari itxaron beharreko tartea.



Erosotasuna bilatu zuenik ere izan zen.



Altuera hartuta, ikuspegia hobea.



Pista, txirindulariz eta zalez estalia.



Azken txanpa.

Txirrindularitza

Pistako erregina ere bada

KADETEETAKO ESPAINIAKO PISTA TXAPELKETETAN MAIALEN ARAMENDIAK ZILARREZKO BI DOMINA LORTU ZITUEN

Zalantzarik gabe hau da Maialen Aramendia txirrindulariaren urtea. Tafallan jokaturako kadeteen Nafarroako Txapelketan lehen nafarra izan zen Caf Transport Engineering talde gipuzkoarrean dabilengazte iturmendierra, Nafarroako txapelduna. Horretaz gain, Iturmendin jokaturako kadeteen Nafarroako Erlojupeko Txapelketan bigarrena izan zen Maialen.

Ondoren, Espainiako txapelketen txanda izan zen, uztailaren hasieran, Jaenen. Nafarroako selekzioarekin lehiatu zen Maialen Aramendia, kadeteen emakumezkoen proban. Lasterketa esprintean erabaki zen eta Sandara Alonso valentziarra izan zen lehena, Irene Trabazo galiziarren eta



Maialen bere anaiarekin, asteazkenean, Vuelta ikusteko portua igo eta gero.

Maialen Aramendiaren aurretik. Brontzezko domina ekarri zuen orduan Iturmendira Maialene. Duen sari bildumari beste bi domina gehitu zizkion, eta beste moda-

litate batean, gainera: pistan.

Espainiako Pistan zilarrezkoa
Pistako Espainiako Txapelketak jokatu ziren abuztuaren 18tik 24ra

Bi domina Mazkiaranendako

Abuztuan Galapagarren jokaturako Espainiako Pista Txirrindularitza Txapelketan Euskadiko selekzioarekin lehiatu zen Hodei Mazkiaran altsasuarra 2 domina kolkoratu zituen. Kilometroaren proban 2.a izan zen altsasuarra, eta keirinean 3.a.

bitartean Madrilgo Galapagarren. Emakumezkoen kadeteetan 200 metroko abiadura proba jokatu zen abuztuaren 19an, eta Maialen Aramendia bigarrena sartu zen helmugara. Hurrengoegunean, 500 metroko abiadura proban, atzera ere bigarrena sailkatu zen iturmendierra. Maialen Aramendiak pistan ere bikain moldatzen dela erakutsi du eta Espainiako Txapelketetatik zilarrezko bi dominekin etorri da. Zorionak!

Kirolegia



Fibromialgia eta neke kronikoa dutenendako jarduera fisikoa eskaini du Mank-ek

Altsasun eta Irurtzunen izanen da, urritik ekainera, eta izena ematea zabalik dago

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, AFINA (Nafarroako Fibromialgia Elkarte) elkartearekin batera, minusbaliotasun fisikoa eta organikoa duten pertsonen euren osasuna hobetzeko jarduera fisiko espezifikoa eskainikodien Altsasun eta Irurtzunen. Helburua fibromialgia, neke kronikoaren sindromea eta sentiberatasun kimiko anizkoitza duten pertsonen osasuna hobetzeko jarduera fisiko espezifikoa eskaintzea da.

ORDUTEGIA

Aipatu ikastaroa edo soinketa Altsasun (Labaderon) eta Irurtzunen (Kultur Etxean) eskainiko da, urriaren 2tik ekainera, asteartean eta ostegunetan. Altsasun 16:00etatik 17:30era eta Irurtzunen 10:40etik 12:10era.

Izena ematea irailaren 26ra arte izena ematea zabalik dago irailaren 26ra arte Mank-eko Kirol Zerbitzuan (948 464 866, kirolak@sakana-mank.com). AFINAko bazkideek 31 euro ordaindu beharko dituzte hiru hileroko, eta bazkide ez direnek 42 euro hiru hileroko.

180 txirrindularik zeharkatu zuten Sakana

Sakandarrak Aralarko kronoigoeran

1.	Felix Valcarcel (Iruñea)	31:52
3.	Iñigo Arellano (Altsasu)	32:32
5.	Iraitz Goñi (Arbizu)	32:57
9.	Alfredo Amillano (Altsasu)	34:54
39.	Karlos Zelaia (Uhartea)	40:20
44.	Julen Palacios (Lakuntza)	40:40
52.	Isidro Asurabarrena (Alts.)	41:59
56.	Jaime Olza (Altsasu)	42:42
60.	Iñaki Alvaro (Altsasu)	43:31
66.	Xabier Seco (Altsasu)	44:28
71.	Javier Borrega (Altsasu)	44:49
72.	Juan Martinez del Olmo (Altsasu)	45:10
95.	Luis Lopez (Altsasu)	48:18
98.	Carlos Gerendiain (Uhar. A.)	48:40
99.	Jose Mari Irañeta (Uhar. A.)	48:45
125.	Javier Arellano (Altsasu)	52:28
143.	Jose Luis Galparsoro (Olazti)	1:00:44

Burunda Txirrindularitza Klubak antolatutako Sakana Burunda txirrindulari martxa arrakastatsua izan zen

Agorrilaren 23an burutu zen Burunda Txirrindularitza Klubak antolatutako IV. Sakana Burunda txirrindularitza martxa. Aurreko urtean eurpean eta elurpean jokatu zen proba ez lehiakorra -San Migeleko krono-igoera bertan behera utzi behar izan zen- eta 66 txirrindulari irten ziren errepidera. Aurten, aldiz, eguraldiak txirrin-

www.clubciclistaburunda.com

Aralarko kronoigoeraren sailkapena, informazioa, argazkiak eta beste.

dularitza festarekin bat egin zuen eta 180 txirrindulari animatu ziren.

Ibilbideak

Antolakuntzak berrikuntza moduan bi ibilbide proposatu zituen: ohikoa (124 km, 2.011 metroko desnibela) eta Aralarko San Migel igoera kronometratua zue-na, eta laburragoa (92,45 km), Aralarko San Migelera igotzen ez zena.

180 txirrindularietatik gehienek ohiko ibilbidea, luzeena, aukeratu zuten. Altsasutik aterata, Ziordiraino jo zuten, buelta hartu eta Urbasako Altamira portua igotzeko. Handik jaitsita, Etxarri Aranatzerraino heldu ziren eta Lizarragako Katea igo zuten, Arbizutik jaitsi eta Uhartea Arakileraino heltzeko. Han, San Migelera igo ziren Uharteko pistatik eta Barai-bartik Oderitzera jo zuten, Madotzeko portua jaitsi eta bertatik Altsasuko helmugaraino heltzeko.



Jorge Azanza irteerako zinta moztzen, Indurainekin eta Izagirrerekin. UTZITAKOIA

Azanzak moztu zuen hasierako zinta

Probaren hasierako zinta Euskalteleko txirrindulari ohi Jorge Azanza altsasuarra moztu zuen, Migel Indurain eta Movistarreko Jon Izagirre txirrindularien laguntzarekin. Xabier Zandio, Pablo Urtasun eta Iñaki Isasi ere tartean zeuden.

Uhartea Arakildik (456,30 m) San Migelera (1216 m) bitarteko 9,4 km-ko igoera kronometratu egin zuten.

Duela 3 urte Carlos Palacios eza-ri zuen denbora onena (30:47) aurtan ere ez zen gainditu. Felix Valcarcel iruindarra izan zen azkarrena (31:52). Lehen sakandarra Iñigo Arellano altsasuarra izan zen, 3. postuan sartuta (32:32) eta lehen emakumezkoa Rebeca Ruiz de Azua gasteiztarra (46:02).

Bukaeran Burunda klubak 200 pertsonarendako prestatutako pael-laz gozatzeko aukera izan zuten.

Mendia



Iratxokoak Ergara

Abuztuaren 23an mendia ibilbidea antolatu zuten Irurtzungo Iratxo mendia klubak. Erga mendira itzo ziren, oinez (1094 m).



15 korrikalarik Guardetxe Igoera berreskuratu zuten

Lakuntzako festetako lehen egunean garai batean ospatzen zen

Guardetxe Igoera berreskuratzea erabaki zuen mendia lasterketetan ibiltzen den Lakuntzako talde batek. 15 korrikalari animatu ziren guztira, eta azkarrena Beñat Katarain izan zen (1:00:18).

IBAI AZURMENDI IRUÑEKO ITZULIKO BIGARREN NAFARRA

Abuztuaren hasieran jokatu zen jubenil mailako 3 etapako Iruñeko Itzulia. 2. etapa Etxarri Aranatzek hartu zuen. Mikel Alonsok irabazi zuen etapa eta 3. postuan Burunda Txirrindularitza Klubeko Ibai Azurmendi sailkatu zen. Huescako Jaime Castrillok irabazi zuen Iruñeko Itzulia. Ibai Azurmendi 15.a izan zen, probako bigarren nafar onena.

Futbola



Asteburuan hasiko da Erregional mailako liga

Etxarri Arrotxapea izango du arerio eta Mutilberaren kontra jokatu du Altsasuk

Asteburuan emango zaio hasiera Erregional mailako ligari. Sakana-ko bi talde lehiatuko dira: Altsasu eta Etxarri Aranatz. Aurreko urtean Lagun Artea B taldearen izenarekin lehiatu ziren ultzamatarrak aurren bere izena berreskuratu dute eta Ultzama izenarekin parte hartuko dute.

Lehendabiziko jardunaldian Mutilberaren kontra jokatu du Altsasuk. Aldiz, Etxarri Aranatzek Arrotxapea hartuko du.

Lagun Artea hurrengo asteburuan 3. mailatik Preferentera jaitsi zen Lakuntzako Lagun Artea, aldiz, hurrengo asteburuan abiatuko du liga, irailaren 14an. Lagunek Amaia hartuko du, igandean, Lakuntzako Zelai Berrin.

Areto futbola

Denboraldia prestatzeko bidean, Burelaren kontra ariko da Magna Xota bihar Asturiasen

Abonu kanpaina zabalik dago

Irailaren 12an hasiko du Estatuko areto futboleko lehen mailako liga Irurtzango Magna Xota taldeak, Santiago Futsalen kontra, Anaitasuna pabilioian. Bitartean, Imanol Arregiren mutilak aurre denboraldian murgilduta daude, denboraldia behar bezala prestatzeko. Abuztuaren 20an jokatuako lagunarteko partidari, Xotak 3-1 hartu zuen menpean Link Zaragoza taldea. Eta Tafatrans taldearen kontra jokatuako lagunarteko bana berdindu zuen Xotak. Abuztuaren 29an Anaitasuna pabilioian Xota eta Marfil Santa Coloma taldeen artean jokatu beharreko partida bertan behera geratu zen, Marfil Santa Colomako jokalariek lesioengatik. Aurrendenboraldiko azken partida bihar jokatu du Magna Xotak Asturiasen, Burelaren kontra.

Bitartean, 2014-2015 denboraldiko abonu kanpaina martxan dago. Helduek 45 euro ordaindu behar dute, gazteek 25 euro eta langabetuek 10 euro. Abonu hauekin Magna Xotak Anaitasuna pabilioian jokatu dituen partida guztiak jarraitu ahal izango dira. Abonuak Xotako bulegoetan jaso daitezke, Irurtzunen 12:00etatik 14:00etara edo Iruñean 10:00etatik 12:30era.

Saskibaloia

Puntako basketa Altsasun

Planasa-Araberrri Basket Klub taldeen arteko lehiak gozatzeko aukera izanen da bihar, 19:00etan, Zelandin

Altsasuko Saskibaloia Klubak, CBASK-ek, Basket Navarra Club taldearen laguntzarekin, punta-puntako saskibaloia partida antolatu du bihar, larunbatean, 19:00etan Altsasuko Zelandi kiroldegian. Urrezko Lehen mailan lehiatzen den Planasa eta Zilarrezko Lehen mailan lehiatzen den Araberrri Basket Klub taldeen arteko lehia izango da Altsasun jarraitu ahal izango dena. "Aurre denboraldiko partida bat izango da" adierazi digu CBASK-eko Juan Carlos Ormazabalek.

Basketa gustuko duten zale guztiek izango dute partida jarraitzeko aukera. Sarrera doan izango da, eta Zelandi betetzea espero dute antolatzaileek. Puntako saskibaloia partida batekin gozatzeko gain,



Altsasuko Saskibaloia Klubak, CBASK-ek eta Basket Navarra Club taldeak hitzarmena sinatu zuteneko. CBASK

saskibaloia sustatzea dute helburu CBASK-ekoek.

Hitzarmena

Izan ere, Altsasuko Saskibaloia Taldeak, CBASK-ek, hurrengo 4 urte tarako hitzarmena sinatu du Pla-

nasa taldea sustatzen duen Basket Navarra Klubarekin. Hitzarmen horren ondorioetako bat ere bada bihar Planasak eta Araberrri Basket Klubak Altsasun jokatu dute aurrendenboraldiko partida. Hitzarmenaren helburua Basket Nava-

rra taldea indartzea da eta herrietako klubetan dabilten gazteei saskibaloian jarraitzeko aukera ematea. Sinadura ekitaldian CBASK-eko presidente Vicente Claver eta Basket Navarrako zuzendaritzako kide Juan Carlos Zabalegi izan ziren.

Irristaketa



Ioseba Fernandez.

Ioseba Fernandez, Europako txapelduna

Europako Irristaketa Txapelketako 200 metroko erlojupekoa eta 500 metroko sprinta irabazi zituen eta 300 metroko erlojupekoan zilarrezkoa izan zen

Ioseba Fernandez Fernandez irristalari iturmendiarrak 3 domina ekarri zituen uztailearen 28tik abuztuaren 3ra bitartean Alemaniako Geisingen hirian jokatuako Europako Abiadurako Irristaketa txapelketatik.

Iturmendiko irristalari handiak iaz urrezko domina jantzi zuen 300 metroko pistako erlojupekoan, baina aurten zilarrezkoarekin konformatu behar izan zuen, Darren de Souza frantziarra izan baitzen azkarrena (23.538 segundo). 13 ehuneneko eskasera sartu zen Ioseba (23.555 segundo), zilarrezko domina jantzita. Baina errebantxa hartu zuen iturmendiarrak, podiumaren gorenera igo baitzen zirkuituko 200 metroko

erlojupekoan (13.344 segundo), Ronald Mulder holandarraren eta Matthias Schwierz alemaniarren aurretik. Horretaz gain, 500 metro sprintean urrezko domina kolkoratu zuen. "Emaitzak onak izan dira eta alde horretatik kontentua nago, baina, akaso, ez dut nire burua nahi nukeen bezain ongi ikusi. Bi hilabete geldirik egon nintzen lesio batengatik eta banekien ez nintzela %100ean iritsi. Horregatik pozik nago emaitzak onak izan direlako eta Mundialei begira hobetzeko tarte dudala uste dudalako" adierazi du irristalari iturmendiarrak.

Izan ere, orain azaroan Argentinan jokatu den Mundialeko buru-belarri prestatzen dabil iturmendiarrak. 2012an munduko txapelduna izan zen Ioseba, iaz txapeldunordea eta aurten atzera ere urreagatik borrokatu nahi du.

Aizkora

Urrezko Kopa Floren Nazabalendako

ETXARRIARRAK 53 SEGUNDO ATERA ZIZKION AITZOL ATUTXARI. ORAIN EUSKAL HERRIKO MAILA NAGUSIKO TXAPELKETA PRESTATZEN ARI DA

Urrezko Kopa:

1.	Floren Nazabal	31:01
2.	Aitzol Atutxa	31:54
3.	Iñaki Azurmendi	33:27
4.	Unai Otaño	34:46
5.	Joxemari Olasagasti	35:22

Abuztuaren 17an jokatu zen Urrezko Kopa, Aste Nagusian murgilduta eta jendez beteta zegoen Donostiako Trinitate Plazan. Urrezko txapelketan sailkatutako 5 aizkolari onenak lehiatu ziren. Aizkolari bakoitzak 14 kanaerdiko erdibitu behar izan zituen, lan ezberdinetan.


Floren Nazabal zen faborito nagusia eta etxarriarrak ez zuen huts egin. Hori bai, Aitzol Atutxarekin lehia estua izan zuen eta hasieran bizkaitarra hasi zen nagusitzen, baina probak aurrerakin ahala etxarriarra aldea ateratzen hasi zen. Azkenean Floren Nazabalek 53 segundo atera zituen bizkaitarrari eta etxarriarrak irabazi zuen Urrezko Kopa.

Orain, Euskal Herrikoa

Euskal Herriko maila nagusiko txapelketa prestatzen ari da orain aizkolari etxarriarra. Izan ere irailaren 13an jokatu da txapelketako kanporaketa, Aian. 12 aizkolari lehiatuko dira guztira, tartean Floren Nazabal, eta sei onenak sailkatuko dira final handirako.

Nazabal bigarrena Ramon Latasa Memorialean

Euskal Herriko aizkolari onen 5 bikotek Ramon Latasa Memorialeko jokatu zuten abuztuaren erdialdean Sunbillan. Ondoko bikoteak lehiatu ziren: Aitzol Atutxa-Ugaitz



Nazabal Etxarriko festetan.

Mugerza, Nazabal-Erasun, Azurmendi-Rekondo, Olasagasti-Otaño eta Larretxea-Etxeberria. Egin beharrekoa, txantxa gutxitarako: biko bakoitzak 16 enbor erdibitu behar izan zituen, 10 kanaerdiko eta 6 60 ontzako. Hasieran Nazabalek eta Erasunek hartu zuten aurrea, baina hirugarren enborrean Atutxak eta Mugerzak aurreratu zituzten eta, nahiz eta seigarren enborrean Nazabal eta Erasun gainean izan, abantaila mantendu zuten bukaerara arte. Hortaz Atutxa eta Mugerza gazteak gailendu ziren (26:23), Nazabali eta Erasuni minutu eta 38 segundo aterata (28:05). Azurmendi-Rekondok osatu zuten podiuma (29:50).

kultura >>

DANTZARIEN IRUDI BAT IRAGARRIKO DU ALTSASUKO FESTAK: Helena Santano Ciden Festetako gonak lana aukeratu dute altsasuarrek festa egitarauko azala izate-

ko. Kontrazala, berriz, txikien mailako lehiaketako irabazle Ane Galan Goikoetxearen irudia izanen da.

Bi bikote bananduren gazi-gezak antzerki musikalean

Larunbatean, 20:00etan eta 22:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. Sarrerak www.iortiakultura.com/eu/web/orrian/daude/salgai

Altsasuko antzokiak bihar *Esta noche no estoy para nadie* antzezlanaren emaldi bikoitza hartuko du. Joan den urteko estatuko komedia musikatu onenaren saria jaso ondoren iritsiko da Iortia. 1981ean kokatuta dago biemakumeren inguruko antzerki musikala. Kontrako izaera duten ama bat eta alaba bat elkarrekin bizitzera behartuta daude, dibortziatu berritan arazo eko-

nomiko larriak dituztelako.

Gau zoro batean senar ohien bisita jaso ondoren, agerian gertatu dira egiak eta gezurrak, fantasiarik barne-barnekoenak eta barneko desiorik ezkutuenak, gaizki ulertu ikaragarriak sortuko dira, eta barrez eta nahastez beteriko zurrumbilo bat eraginen dute. Eszenografia handian jokatu dute antzezleek obra, horregatik haren muntaia gaur hasiko da.

Jatorria

Esta noche no estoy para nadie Juan Carlos Rubioren komedia



original bat da, 1997an mustuzen, Esperanza Roy protagonista zuela. Garai hartan estatuan eta Amerikan arrakasta handia izan zuen. Oraingoan Rubiok, Raul Gama musikariaren eta Isabel Montero letragilearen laguntzaz, komedia zena antzerki musikal bihurtu du. Horretarako, dozena bat abesti sortu dituzte

Fitxa

Zuzendaritza: Juan Carlos Rubio
Aktoreak: Kiti Manver, Gisela, Bruno Squarcia, David Ordinas

propio, aktoreak zuzenean kantatzen dituztenak piano-jole baten laguntzaz.



Zirkua Altsasun

Ezin zailagoa zirku jaialdia hartu zuen larunbatean Altsasun. Iortia kultur gune parera hurbildu zirenek Bot Proyect konpainiaren *Collaje* ikuskizuneko akrobazia, oreka eta tranpolin abileziekin gozatzeko aukera izan zuten. Duo Laos konpainiak *Upside down show*-ak buruz buruko akrobaziak eskaini zizkien ikusleei. Jaialdia Mumusic konpainiaren *Roda, mon* ikuskizuna izan zen. Txinako masta eta pull-ean orekarekin eta musika bitxikeriekin gozatu zuten zirku zaleek.

Margo maputxeak eta Europa aborigenari buruzko hitzaldia denda zabaltzeko

Gaur, 18:00etan, mustuko da Basoko Mari denda, Altsasuko Gartzia Ximenez kalean

Paz Treuquil margolari maputxearen *Gure sustriak ardazten* erakusketa-ekin mustuko da gaur Basoko Mari espazio berri altsasuarra. Ngulumapukoa (Los Rios, Txile). Sortzaileak han eman du bere bizitzaren zatirik handiena. Landa eskoletan kultura artekotasan irakasle zela bere kabuz hasi zen margotzen. Ikasleekin batera ikasi zuen margotzen, ikastetxeetako pareta tristeteei kolorea emanaz. Ikasleek animatu zuten koadroak margotzera.

Bere irudiak antzinakoak dira; lurraren eta animalien edertasuna eta indarra dute, bizitza hutsarena. Bere irakaspena xumea eta aldi berean indartsua da: basoekiko eta errekekiko maitasuna, gure sustraiekikoa, gure benetako izaerarekikoa.

Margo erakusketarekin batera, Altsasuko espazio berriak Guillermo Piqueroren *Mitologia salvaje* liburuaren aurkezpena hartuko du. Kantabriarra, EHU'n kazaritza lizentziatua da. *El sendero aborigen* fanzinea sortu zuen eta hura Europa indigena (www.europaindigena.com) kultur zabalkunderako proiektuaren oinarria izan da. Haren bidez lehen kultura

europarren (goi paleolitiko eta neolitiko) jatorrizko mundu-ikuskerak berriz osatzeko ekarpena egin nahi du.

Piquerok, bere liburuan, gure arbasoen unibertso sinbolikoan barrena inimizazio-bidaia bat egitea proposatzen digu. Bere kontakizunaren ardatza Ama handia eta Animalia basatien jauna izanik (Goi Paleolitoan sortu ziren arketipo sakratuak), berak mundu ikuskeraren indigena europarra deitzen duenaren alderdirik garrantzitsuenak aletzen ditu. Liburuan euskal mitologiaren aipamen asko agertzen dira, Mari eta inauteria (Altsasuko momotxorren argazki eta gutti) eta, batez ere, euskara.



Basoko Mari

Bea De la Vegak sustatutako espazioa arte, natura, historia eta mitologiari zuzenduta dago. Sakana-ko informazio eta turismo argibide gune bat izateaz aparte, dendan ibarreko artisautza-lanak aurki daitezke, besteak beste, Harbizi (sormen artistikoa) eta Selvas mágicas (diseinua) marketa-

koak. Gartzia Ximenez kalekoa ez da ohiko souvenir denda bat. Han dituzten pieza guztiek dute haien azalpena, eta benetako testuinguru batean kokatuta daude. Hortaz, "gure piezetako bat eramaten duenak ez du sormen lan berezi bat eramaten bakarrik: gure historiaren zati bat eramaten ari da" zehaztu du De la Vegak.

bazterretik

Laida

Aldaketarako Garaia

Bost urte nituenean hasi nintzen dantzan eta berehala argi eta garbi izan nuen dantzari bihurtu nintzela. Hamahiru urterekin ikastolan zazpi ordu sartzen nituen eta handik ateratzen beste sei dantza eskolan. Goizeko zortzietan ateratzen nintzen etxetik eta gaueko hamarretan itzultzean afaldu eta beste ordu pare bat behar nituen etxeko lanak bukatzeko. Institutuko azken bi urteak gauez egin izan behar nituen, dantza klaseak goizean zirelako. Noiz sortuko dute

estatu mailan dantza eskola bat non artea eta oinarrizko hezkuntza orokorra batera jaso daitezkeen? Nafarroako Dantza Eskola Ofizialeko ikasle nintzenean, ez nuen ulertzen zergatik kanpoan dantza profesionalean zebiltzan ikasle ohiak ez ziren behin ere klaseak ematera etortzen, kanpoan lantzen ziren teknika berriak erakustera. Duela bost urte Nafarroako Dantza Eskola Ofizialean zeuden ikasleei, nik izan ez nuen aukera eskaini nahi izan nien, eta orduan zegoen zuzendariari nire irakasle zerbitzuak eskaini nizkion aste beteko lante-

gi baten bitartez. Bere erantzuna zera izan zen, eskola ofizialean oposizioak gainditutako funtzionarioek soilik eman zezaketela klasea. Zein da artea eta funtzionarioen arteko erlazioa? Eskola horretan hamar urte izan nintzen ikasle eta dantzari profesionalak izan ziren bi irakasle bakarrik eduki nituen, ez al da arraro samarra arte eszenikoen hezkuntza eszenatik egon ez den pertsona baten eskutik jasotzea?

Ordu pila bat pasatu dut dantzaren teknika desberdinak neureganatzen eta ahalik eta hobekien gauzatzen.

Urte asko igaro nituen, non irakasleek erakusten zidaten zera zen, trebezia eta sormenaz irelandu beharreko gauza garrantzitsuenak. Baina behin mundura lanera atera naizenean eta errealtaterekin topo egindudanean, artea negoziatzen dela ere konturatu naiz. Hala bada, zergatik ez digute erakusten dantza eskoletan guk sortutako lanak nola saldu behar ditugun? Zergatik ez digute behin ere azaltzen jabetza intelektuala eta egileen eskubideak noladefendatuz dituzakegun? Ez allitza-teke garrantzi handikoa eskola hauetan enpresa administrazio klaseak

jasotzea artista sortzaileek eta freelance-ek langile beregainek (autonomo) bezala egiten badugu lan? Estatu mailan ez dago dantza ikasi daitezkeen unibertsitatekin, baina badaude arte ederren fakultateak. Zein da diziplina artistiko hauen artean egiten den ezberdintasunaren arrazoia? Beste herrialdeetan dantza unibertsitateetan ikasi badaitezke, zergatik ez da posible Euskal Herrian eta estatu mailan? Duela hamalau urte egin nuen alde Nafarroatik eta gaur egun egoera ez da batere aldatu. Ez al da aldatzeko garaia?

Koplak Extremadurako eguna ospatzeko

Domekan, 18:00etan Altsasuko lortia kultur gunean

La Encina, Altsasuko Extremadurako elkarteak, erkidegoko eguna ospatzeko ekitaldiak antolatu ditu domekarako, tartean Merche Cuadrado kantariaren emanaldia. Espainiar kantua eta bere sorkuntzak ere eskainiko ditu Cuadrado (koplak, pasodobleak, fandangoak, sevillanak edo flamenkoa).

Eskarmentu handiko kantaria da Quintana de la Serenako (Badajoz) kantaria. Makina bat aretoetan eta telebistetan aritua. Hainbat disko grabatuak ere baditu. Pasa den mendeko 70eko hamarkadan Euskadira joan zen bizitzera. Bizitoki berrian Extremadurako kulturazabaltzeko ahalegina egin zuen Cuadrado, bestehainbatekin batera. Hego Euskal Herrian makina bat emanaldi eskaini ditu, baita Extremaduran ere.

Arakilgo argazki lehiaketak baditu irabazleak

Arakilgo Udalak estreinakoz ibarrari buruzko argazki lehiaketa antolatu du aurten. Lehiaketara aurkeztutako argazki guztiak Arakilgo Egunean Urritzolan ikusteko aukera izan zen. Arakildarren bozek herritarren saria Miguel Angel Laplana Albari eman zioten. Hark Aralarko aingerua eta gurutzea eliz atean agurtzen diren unea jaso zuen. Herritarren bozketatik 100 euroko saria jaso zuen Laplanak.



Epaimahaiak, berriz, bi sari eman zituen. Jaiak eta tradizioak sailean Garbiñe Perkaz Irañetaren *Pilotan 2* argazkiak irabazi zuen. Ihabarko frontoian jokatuak bina-

kako partida bateko unea bat jaso zuen argazkian. Ondarea eta paisaiak saileko saria, berriz, Mikel Perkaz Irañetaren *Berain* argazkiarendako izan zen. Mendi gainetik Satrustegiko mendizerrako barga berdetua erakusten dulanak. Biegi-leek 250 eurora jaso zituzten.

Ingalaterratik aseta bueltatu da Erkudengo Ama abesbatza

Agorrilaren lehen astean egin zuten Somerseteko konterrian egonaldian jasotako maitasun eta arretarekin poz-ozirik daude Altsasuko abesbatzako kideak. Halseko abesbatzarekin eta Wellingtongo abesbatzarekin emandako kontzertuak "arrakastatsuak eta, batez ere, hunkigarriak" izan ziren.

"Gure folkloreko kantuekiko miresmena adierazi zuten. Mari-pi Larreak kantatutako bi jotekin harritu ziren eta miretsi zituzten", esan digute abesbatzatik. Ingalaterrako bi abesbatzek *Maitia nun zira* eta *Agur zaharra* kantuak ikasi zituzten, altsasuarrekin batera kantatzeko.

Mank-ek bertsolaritza sustatzeko laguntza tekniko eskuratzeko deialdia egin du

Irakaskuntza arautuan bertsolaritza irakaskuntza bermatzeko eta bertso eskolak martxan mantentzeko deialdia

Urtero moduan, Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak ibarreko ikastetxeetan bertsolaritza programa sustatzeko eta bertso-eskolak kudeatzeko deialdia egin du. Hezkuntza Departamentuak Bertsolaritza Irakaskuntzan programa sustatzen du, baina bideratzen duen aurrekontua nahikoa ez denez, urteak dira

Mank-ek diru ekarpen osagarria egiten ari dela.

Mank-en ekarpena orain arte 8.000 eurokoa izan da, baina aurtengo 13.000 eurotara igo du. Aldaketa horren zergatia azaldu digu Maitte Iparragirre euskara teknikariak: "irakaskuntza publikotik pribatura ere zabaldu da bertsolaritza ikastetxeetan emateko eskaintza". Horretaz aparte, aurreko urteetan bezala Etxarri Aranazko eta Altsasuko bertso eskolei eusteko ere balio beharko du esleipenak.

Felipe Gorritiren musika eskura



AusArt diskoetxearekin batera Bierrik Fundazioak, bere bazkide eta sakandar musikazale guztiei, Sakanako musikari handi baten obra eskuratzeko aukera eman dute: Felipe Gorriti musikagile, kapera-maisu eta organo-jotzailea. Diskoetxearen eta fundazioaren eskaintzaren bidez musikazaleek Uharteko Arakilgo musikariaren bost disko eskuratzeko aukera izanen dute. Bierrikeko bazkideek merkeago erosteko aukera izanen dute.

Polifonia errenazentista

Gorritik lortutako fama eta mailaren adierazgarri nagusi Parisko Société Internationale des Organistes et Maîtres de Chapelle-en konposizio lehiaketetan lortutako arrakastak dira. 1881az geroztik zazpi aldiz aurkeztu zen hileroko antolatzen ziren lehiaketa hauek eta bertan lau lehen sari eta

hiru lehen aipamen lortu zituen.

Bere katalogoa 250 bat lanez osatua dago, gehienak erlijiozkoak. Gorritiren konposizioen azterketak erlijio musikaren momentu interesgarri bat azaltzen digu, non ondoan ezartzen diren Italiako opera estiloa (bereziki Bellini), Europa erdialdeko erromantizismoa, Frantziako organo irakaspena, folklore musikaren eragina eta Alemania, Italia eta Frantziatik gertatzen ari zen erlijiozko musikaren erreformarekin zenbait ezaugarri zituen, kantu lauaren tratamendua edo estilo soilaren erabilera polifonia errenazentista hartzen duen eredu bat.

Produkzioen artean azpimarratzekoak dira *Misa en Do*, ahots zurirentzat idatzitako *Misa en Re*, *Miserere "Viejo"* eta *Miserere "Grande"*, *Ecos de Andía* eta, besteak beste, *Agur Jesusen Ama*, Ama Birjinari eskainitako abesti ezaguna.

Bost diskoak

Eskaintzaren lehendakoa *Musika Klarisarentzat da. Stabat Mater* (1871); *Agur Doloretakoa* (1871); *Misa en Re* (1892) eta *Tota Pulchra* (1894) lanak biltzen dira diskoan, Loiolako Nazioarteko Jaialdiko orkestrak bakarlariekin lagunduta. Bigarren diskoak *Requiem aeternam* izenburua du. Hodeiertz abesbatzak abestutako bi lan jasotzen dira: *Misa de Requiem* eta *Magnificat para Difuntos*. Baita Goikobalu abesbatzak kantatutako *Misa pro defunctis* lana ere bai.

Agur Jesusen Ama - Antologia da hirugarren diskoaren izenburua. Bertan agertzen dira *Agur Jesusen Ama* abesti ezagunaren bi bertsio; *Tota Pulchra*; *Surge Propera*; *Lamentationae*; *Magnificat del Corpus*; *Gradual de la Misa de Natividad*.

Laugarrena *Miserere Mei* da. Bertan bi obra grabatu dituzte Loiolako Nazioarteko Jaialdiko orkestrak eta bakarlariek Javier Bello-Portu zuzendariaren gidaritzapean: *Miserere en sol mayor* (1861); *Gran Miserere* (1892). Azkenak *Lamentaciones*-erostak (1877) izenburua du. J Bello Portuk zuzentzen ditu V. Canale, sopranoa; P. Landrigridge eta D. Johnston tenoreak eta R. Stalman baxua.

Eskaerak

948 564 275 edo 948 562 107 telefonoetara hots eginez edo bierrik@guaixe.net e-postara idatziz eskatu daitezke. Bazkideek 22 eurotan erosi ahal izango dute bilduma osoa: ez direnek, berriz, 25 eurotan.

Biografia

Jaioterriko idazkari-organista zen Leon Gorritik, eman zizkion lehen musika eskolak Felipe Gorritiri. 11 edo 12 urte besterik ez zituela Tafallara bidali zuen Jose Preciado kapera maisuarekin ikasi zezan. Aurreago pianoa eta harmonia ikasi zituen. Ondoren Tolosako Santa Maria kaperako Candido Aguayo kapera maisuaren ezagutzak jaso zituen. 1856ko irailean Madrilgo

Errege Kontserbatorioan sartuz. Bereheziketa oraindik bukatu gabe zuela, 1859ean, Tafallako Santa Maria parrokiako kapera maisu eta organista postua eskuratu zuen oposizio bidez. Orduan hasi zen fama lortzen eta inguruko herritako dizipuluak erakarri zituen. Tafallan, kaperako musika zuzendu eta bere lan azpimarragarrienak idazteaz gainera, hasiberria zen musika-banda antolatu zuen. 1860an Eugenia Izurekin ezkondu zen eta bost

seme-alaba eduki zituzten. 1867an Tolosako organista eta kapera maisuaren plaza libre gelditu zen eta oposizio bidez eskuratu zuen. Hil arte egongo zen bertan. Santa Maria parrokiaren bereziki lanak interpretatzeko 28 musikariz osaturiko kapera zeukan, gizonezko abeslari eta hari eta haizezko instrumentuez osatua zegoena. Era berean, Tolosan musika-banda zuzendu zuen eta irakaskuntzan ere ibili zen. Uharteko lurperatua dago.

Irailaren 19an, ostirala, 19:00etan, gure lana erakusteko TAILERRA DOAN

Urriaren hasiko gara klaseekin
Asteazkenetan 17:30-19:00 eta 20:00-21:30

Urtariletik aurrera
Yoga Irakasleen Formazioa. Ikastaro trinkoak.

Info+: Omkar 630 777 130 edo neban9@yahoo.es
Gela alokatzen da

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 8%	euria: 10%	euria: 45%	euria: 88%	euria: 40%	euria: 28%	euria: 30%
Min: 12 Max: 23	Min: 13 Max: 25	Min: 14 Max: 26	Min: 15 Max: 23	Min: 15 Max: 22	Min: 14 Max: 24	Min: 14 Max: 24

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	30.5	10.5	0
Etxarri A.	29.7	8.6	0
Altsasu	27.5	10	0.3
Aralar	23.6	9.9	4.8
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia >>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
2	9	16	24

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

beleixe gualxe

Iraileko bazkide zozketa

IRAILEKO SARIAK:

1- Ekainberri kobazulotarako 2 sarrera, Lacturale esnea eta yogurtak, Gazte Zulo aldiakarako 3 hilabeteko harpidetza, Artaza kanpinerako deskontu balea.

2-Artaza kanpinerako deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gazte Zulo aldiakarako 3 hilabeteko harpidetza eta Donostiako Aquariumerako sarrera bat.

3- Artaza kanpinerako deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gazte Zulo aldiakarako 3 hilabeteko harpidetza eta Donostiako Aquariumerako sarrera bat.

4- Artaza kanpinerako deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gazte Zulo aldiakarako 3 hilabeteko harpidetza eta Donostiako Aquariumerako sarrera bat.

>> 11 galdera

Juan Mari Urteaga

Ziordiko traumatologia

Testua: Maialen Huarte Arano



Jaitsi festa programa mugikorrera!

Altsasuko festak 2014

Altsasuko festak 2014 smartphonetarako aplikazioarekin nahi duzunean izango duzu programaren eskura. Offline, funtzionatzen duenez ez duzu zertan konektatua egon beharrik.

App-a dohako da eta Google Play-en duzu eskuragai Android gailuentzako. Edo QR kode hau irakurri eta listo!

Guaixe KOMUNIKAZIOA

948 564 275 argi@guaixe.net

1. Nondik datorkizu mediku izateko bokazioa?
 Familian lehena naiz mediku izaten, beraz, besteengandik baino nire senak eskatzen zidalako naiz mediku. Haurra nintzenetik izan dut argi. Heldu zarenean zer izan nahi duzu galdetzen zidatenean, beti erantzun izan dut mediku izan nahi nuela.

2. Traumatologiako espezialitatea egin zenuen. Zergatik?
 Medikuntzak alor asko ditu eta guztiek dituzte euren berezitasunak. Niri beti interesatu zait giza-kion gorputzeko hezurren berri izatea eta horrek bultzatuta aukeratu nuen traumatologia.

3. Zein gaitz tratatu duzu maizen?
 Belaunean espezializatu nintzen. Azken 22 urteotan ebakuntza alorra tratatu dut gehien eta denetik ikusteko aukera izan dut. Adin bakoitzak badu bere eritasuna; haurren artean meniskoko arazok izaten dira asko, gazteen artean kirolarekin loturiko hausturak eta urradurak, eta helduek adinarekin loturiko arazoak izaten dituzte.

4. Ubarminen egin duzu lan, herritarren belaunak zaindu dituzu.
 Eguneroko lanean protagonistak izan ditut herritarren belaunak bai. Kontsultak eguneropasatzen nituen eta astean bitan ebakuntzak egiten nituen. Zaintzak egitea ere egokituzait eta Bideko Ama ospitalean egin ditut.

5. Ziordian ere kontsulta pasatzen zenuen.
 Herri txikietan denok elkar eza-gutzearekin batera konfiantza handia sortzen da batzuen eta beste artean eta mediku izanda jende asko hurbiltzen zait galdetzerara. Nik gustu handiz egiten dudana lana da, egin dezakedan gutxienekoa da hori.

6. Nola ikusten duzu Osasunbidearen osasuna?
 Gaitz handia du Osasunbideak. Sendaezina ez den heinean, sendatzeko konpromisoa duen jendea berandu baino lehen iristea espero dut. Izan ere, orain arte Gobernariak gaizki kudeatu izanaren ondorioak pairatu ditu osasun publikoak. Ongizate estatua suntsitzen ari dira herritarren osasunaren kontura. Nafarroako Osasunbidea aitzindari izatetik, nahigabea ematera pasatu da. Pentsa, duela urte bete jubilatua naiz. Garai hartan itxaron zerrenda hiru hilabetekoa zen, orain urte eta erdikoa da.

7. Horrek nola eragiten du profesionalengan eta erabiltzaileengan?
 Profesionalek gure bokazioarekiko izan dugun motibazioa galtzen ari gara murrizketa horien erruz. Lanera gogotsu joatetik, kezka joatera pasatu gara. Administrazioarekiko dezepzio handia dugu. Erabiltzaileengan bestetik, kalitatean izan du eragin handiena. Itxaron zerrendak ikustea besterik ez dago.

8. Zer iruditzen zaizu terapia

alternatiboek egun hartu duten indarra?
 Traumatologian eta bereziki belaunean sortzen diren arazoetarako ez dute gehiegi balio. Eba-kuntzatik pasatu aurretik jende askok probatzen du, baina, ezer gutxirako. Gainerakoan agian lagun dezake, gure kasuan askorik ez. Dena dela, ez nago oso jantzia terapia alternatiboetan. Ezjakintasunetik ari naiz.

9. Jubilatua zarela urtebete pasatu da. Etsitzen al duzu?
 Ederki bizi naiz. Kezka guztiak uxatu gabe dena dela, osasun publikoak duen egoera zein den ikusita. Medikuntza bokazioa den heinean, faltan botatzen dut erabiltzaileekin sortzen den harremana eta bereziki lankideekin sortzen dena. Oraindik ere lankideekin elkartzen gara ospitaletik kanpoko jardueretan.

10. Zer da medikuntzan aritzearen onena eta txarreana?
 Jendearekin hartu eman berezia sortzen da eta laguntzen ari zarelakiteak on egiten du. Zailen artean kokatuko nuke, albiste txarrak eman beharra. Zaila da eta inorkezkaitu prestatzen horretarako.

11. Nola jaso duzu txupinazoa jaurtitzeko aukera?
 Herriko beste edozeinek nik baino gehiago merezi dezakeela uste dut. Ez nuen halako proposamenik espero egia esanda. Ohore bat da eta gustura botako dut suzuria. Festak familiarrean ospatuko ditut gero.